



ARGIA

MAMADOU OURY:
GINEA KONAKRYTIK
EUSKAL HERRIRAKO
ODISEA BELTZA

**HITANOA ETA
GENEROA:**
ZERGATIK DAGO
NOKA GALDUAGO
TOKA BAINO?

DANIEL OLZOMENDI:
"OHARTU GARA
EUSKAL ELKARGOAK
BERE MUGAK
DITUELA"

KOLDO ALMANDOZEN 'OREINA' ZINEMALDIAN

***"Askorentzat film luze bat
egin arte ez zara inor"***

Iraultza Txikien akAnpada

Tres dias de buen vivir Trois jours de bonne vie

ZubietA (GIPUZKOA)

iRailak 21-22-23

OSTIRALA



LURRIKAREN ERDIAN, GU BERRIBAT?

19:00 - Gonbidatuak: Euskal Herriko Eskubide sozialen karta, Emakumeen Mundu Marxa, Amankomunak, Hirritarron harrera sarea.



16:00. Ongi etorri eta asanblada



22:00. Antzerkia
ERRADIKALAK GARA

IARUNBATA



HERRI MUGIMENDUEN ETA INSTITUZIOEN ARTEKO HARREMANAK

Ezinak eta eginak

10:00 - Gonbidatuak: Larraitx Ugarte (EH Bildu) Laura Perez (Drain Bai), Maravillas gaztetxea, Josebe Iturrioz (Medeak)



ERASO MATXISTAK GURE ESPAZIOETAN

Trapu zikinak aztergai (emakume jendarteratuentzako, ez mistoa)

10:00 - Gonbidatuak: Bilgune Feminista, Ezker abertzalea, Joxemi Zumalabe



ZERGATIK EGITEN DUGU GIZONOK ERASO?

Zer egin egin egiteari uzteko? (gizon jendarteratuentzako, ez mistoa)

10:00 - Gonbidatuak: Gizonenea, Zipriztintzen, Toka



BIZITZA BURUJABETZA: ALTERNATIBAK EZAGUTZEN ETA SARETZEN

10:00 - Abaraska (Etxebizitza), Orduña (Elkadura), Mbolo kooperatiba (Lana), Garesko errota (Energia), Koop57 (finantza etikoak), Arteako venta (Elkarbizitza) eta beste hainbat



BEHETIK ERALDATZEN, MUGIMENDU TXURI KLASA ERTAINEKDETATIK?

16:00 - Gonbidatuak: Gladys Giraldo (mugimendu feministako aktibista kolonbiarra), Anabel Sanz (Ongietorri errefuxiatuak eta Feministadiko kidea), Afaf Al Haoui (Munduko emakumeak "Babel")



HERRI MUGIMENDUEN BORROKA MOLDEAK

Eztabaidagai: gatazkak, biolentziak eta aliantzak

16:00 - Gonbidatua: Joxemi Zumalabe Fundazioa



BIZITZA BURUJABETZA: MAHAI-INGURUA

Lurraldearen birjabetza: herri boterea bizitzarako espazioak berreskuratzeko

16:00 - Gonbidatuak: Amaia Oleaga, Andoni Eglia, Beñat Irasuegi



ELKARREKIN KONSPIRATUZ, PIZTU DITZAGUN ETXEAK ETA KALEAK!

Egin nahi dugu zerbait elkarrekin, behetik gora herri boterea eraikitzen jarraitzeko?



14:30. Bakarrizketa
BURUHAUSTEAK



23:00. Poesia emanaldia
POBRESIAK



00:00. Kontzertua
RUKULA



JOLASTU ETA ERAIKI
Egun guztietan umeentzako espazioa eta jarduerak

IGANDEA



PROCES CATALA

Euskal herrigintzarako ikasgaiak

10:00 - Gonbidatuak: Iligo Robredo (CUPeko idazkaritza nazionala), Unai Apaolaza (Zergatik ez?), Sortu



JENDARTE LIKIDOA. MILITANTZIA LIKIDOA?

Eraginkortasuna, konpromisoa eta antolaketa ereduak

10:00 - Gonbidatuak: Saioa Iraola (Bilgune Feminista) eta Txomin Poveda (Sociologo eta militantea).



ELKARREKIN KONSPIRATUZ, PIZTU DITZAGUN ETXEAK ETA KALEAK!

Egin nahi dugu zerbait elkarrekin behetik gora herri boterea eraikitzen jarraitzeko?



16:00 **Ekitaldia** Erraustegia gelditu zutenei aitortza + **Erraustegira martxa**



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Dena xahututakoan zer?
Nauru uhartean jada gertatu da etorkizuna
- IRITZIAK**
- 17 Asier Blas Mendoza
- 18 Iñaki Murua
- 19 Oier Guillan
Castillo Suárez
- 20 Katixa Dolhare-Zaldunbide



*Zientzia fikzio feminista osasuntsu dago,
horren adierazle 'The Handmaid's Tale' telesailaren arrakasta.*

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIAKO AZOKA
- 43 ARGIAKO KOMUNITATEA
- 47 ARTEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENEKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
MIXEL ETXEKOPAR
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Martin Orbe: "Ezin zara torturaren zamapean egon bizi guztian" / Miel A. Elustondo
- 22 | Zinemaldia orain SSIFF da (baina badaki euskaraz) / Gorka Bereziartua Mitxelena
- 28 | Mamadou Oury Diallo: "Nire bizitza beste askorena da" / Z. Oleaga
- 32 | Hitanoa eta generoa: Berreskura ote daiteke hika feminismotik? / Onintza Irureta Azkune
- 34 | Hamar urte krisian: kasino globalaren pitzadurak hor jarraitzen du / Urko Apaolaza Avila
- 36 | Daniel Olzomendi: "Ez etorri bigarren etxe bat erostera, partekatu bizitza gurekin erosi gabe" / Mikel Asurmendi
- 44 | Zientzia fikzio feminista: Heteropatriarkatuaren espazio eta denborez harago / Amaia Lekunberri Ansola

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AUERRERA. MILA ESKER DENOKI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Gonzalez de San Pedro,
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estibx Eizagirre,
Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz,
Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Nahia Ibarzabal,
Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus,
Mari Karmen Loiarde.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua,
Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU
ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU
ETA BALDINTZA BEREETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus

PANORAMA

Exodo isila

Irudi hau erraz ager liteke Europako edozein egunkaritan. Bideak urratutako oinak, haizea eta eguzkiak erretako musuak, maletari tiraka doazen familiak sorterrira atzean dutela... Elementu berdinak Balkanetan 2015eko udan ikusi genituenak. Baina oraingoan ez dago oihartzun mediatikorik, soilik isilpeko irteera masiboa, venezuelar azentua duena. Nazio Batuen arabera, azken lau urteotan 2,3 milioi venezuelarrek herritik alde egin dute oinarrizko beharrak ezin asetzeagatik, nagusiki etenik ez duen inflazioak eraginda. Azken hilabeteotan exodoa azkartu egin da, eta estimazioek diote 2019an 4 milioi venezuelar izango direla. Konparaziorako, Siriako gerran 2011tik hona 5,6 milioi errefuxiatu izan dira. Latinoamerikako historia hurbilean izan den migrazio mugimendurik handiena, Gobernuaren eta oposizioaren arteko dema politikoak ilunpean lagatakoa. Irudian: 19 urteko D'Angelo venezuelarra gariarekin jolasean, Perura bidean.

Argazkia eta testua: Edu León





Vueltaren aitzakian armak nola erabili azaldu du Polizia Nazionaleak Durangon.



“Vuelta zure herrira dakartenean, udalak dekretuz 25.000 euro ematen dizkionean eta herriko plaza enpresa espainiarren txiringitoz eta polizia nazional bezetuz dizutenean... txirrinduzaletasuna pasatu eta alabarekin igerilekuetara zoaz”

@ielortza



“Lanetik irten, Durangon, eta neska gazteak espainiar poliziaren kamisetak jantzita ikustean ez dakit hitzez deskribatzen zer pasau den nire burutik”

@itzisax



“25.000 € publiko tortura eta errepresioa irudikatzen duen polizia gorputz batek bere armak eta tramankulu militarrek Durango erdian jartzeko”

Dani Maeztu (Anboton)



AGIPRESS

Italiako gobernuak ez ditu baimenduko 12 erraustegi berri

Zero Zabor

@zero_zabor

Sergio Costa Italiako Ingurumen ministroak iragarri du Mateo Renzi aurreko gobernu aldian 12 erraustegi berri baimentzeko onartu zuen legea aldatuko dutela: Toscana eta Sizilian (bina), eta Piemonte, Liguria, Veneto, Umbria, Marche, Campania, Abruzzo eta Puglia eskualdeetan eraikitzeak ziren 12etatik ez da bakar bat eraikiko.

Errausketaren inguruko eztabaida bero dago Italian. Alderdi Komunistan jardun ostean PD Alderdi Demokratikoarekin Erromako Gobernuaren buruzagitza harturik, 2014an Renzi aukera berriak eskaini zizkien hondakinen negozio zaharrei Italia desblokeatzeko estakuruz 2014an atera zuen legearekin (Sblocca Italia legea).

Erraustegiak “estrategiko eta nazioaren intereseko azpiegitura” izendatu zituen Renzi, eta 12 berri baimentzeko bidea ireki zuen. Aurretik 42 gehiago ari ziren lanean eta 6 gehiago zeuden eraikitzen hasita. Hondakinen gaikako bilketan txapelduna den Italian probokaziotzat hartu zuen askok.


Iraila bero, Euskal Herrian

Bestalde, CEWEP Europako errauste planten patronalak irailaren 19tik 21era biltzarra egingo du Bilbon, Zabalgarbi erraustegiak antolatuta. Zero Zabor Bizkaian elkarguneak protesta egingo du. Eta Lurralde Askea kolektiboak berriz, Iraultza Txikien Kanpaldia deitu du Zubietan (errauste planta eraikitzen ari diren lekuan), irailaren 21etik 23ra. “Bestelako Euskal Herria amesten dugunon topalekua izango da”.

“Nahitaezkoa da naturatik hurbileko basogintzaren aldeko apustu irmoa egitea”

KOLORE GUZTIETAKO BASOAK PLATAFORMA

“Kalifornian jatorria duen *Pinus radiata* landaketa intentsiboek kolapsoa eragin dute Bizkaiko paisaia. Aurreikuspenen arabera, bost urteren buruan pinu landaketa ia guztiak pinuen osasuna erabat kaltetzen duten hiru onddok jota egongo dira: Banda gorria, Banda marroia eta *Fusarium*. (...) Beharrezkoa da baso-laguntzak birmoldatzea, bertako basogintzan hasi nahi duten jabe-dun pribatuei laguntzeko. Administrazioak kudeatutako jabe-dun txikiz osatutako kooperatibak izan daitezke irtenbidea”. 2018-09-10



FAUNA PUBLIKOA

"Politika akordioak lortzea da, ez pankarta bakarrik"

Idoia Mendia,
PSE-EEko idazkari nagusia
(Noticias de Gipuzkoa)

Ados egon behar, derrigorrez



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Gauza bat egiteko tentazioa izan dut aste honetako zutabeetan: goiko esaldia jartzeko zorian egon naiz, baina norena den zehaztu gabe. Asmatuko luke irakurleak? Nik behintzat, itsuan jarrita, ez. Sakoneko ideiarekin guztiz kontraesanean ez balego, manifa bat antolatu behar lukete gure ordezkari politikoek Mendiak esan duena babesteko. Ehunka kargu profesional Bilboko Autonomia kalea betetzen, goiburuan hau irakurtzen dela: "Gu gara herria: guk erabakiko dugu (eta zuek ez)".

Aurrekontuak onartzeko botoez ari zen Mendia, Elkarrekin Podemosi pankartagintza leporatu dionean. Baina izatez, mota horretako deklarazioak karrera politikoa egiteko asmoa dutenen kluxe bihurtu dira; labana erraza, normalean zu baino ezkererago dagoenaren kontra erabiltzeko zorrotua, eta errepikatzearen errepikatzez, oso marko antidemokratikoa ezartzen duena, Marina Garcés-ek inoiz esplikatutako izan duen moduan: "Ez dago botere sendoagorik kontsentsuak sortzeko gai dena baino, pentsamolde bat inposatzeko gaitasuna daukalako: adostutakoa bakarrik dela demokratikoa; hartara, desadostasun guztiak kanporatzen dira demokraziaren esparrutik".

Urtetan lokatzetan iraulka ibili ondoren, Hego Euskal Herriko politika instituzionalak tentsioa galdu du; eta bai, askok eskertu dugu. Baina lasaitasunak prezio bat dauka, geroz eta gardenago ikusten da: badirudi kontsentsugintza bihurtu dela politika egiteko modu bakarra. Berdin du zein alderdiri begiratzen diozun gainera, asteburu berean Mendiaren antzeko terminotan zuzendu baitzaio Arnaldo Otegi ELAri, sindikatua kritiko agertu delako Estatutu Berriaren proiektuarekin. Gure posibilitateen gainetik adosten ari garela pentsatzen hasia naiz. ■

EZ HANKA EZ BURU!



...ETA NOLA DEITUKO DUGU
ESTATUS POLITIKO BERRIA?

ZER IRUDITZEN ZAIZUE
"GERNIKAKO ESTATUTUA"?



ADUR

ANALISIA



Mugikorra eskolan, zertarako?



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Ez naiz ni debeku zalea, baina entzun diet ikastolen elkarteko eta eskola publikoko hainbat ordezkari mugikorrak eskolan debekatu ordez haurrei sake-lakoa egoki erabiltzen erakutsi behar zaiela, pedagogikoki tresna bikaina dela eta ikastetxe bakoitzak erabaki beharreko zerbait dela, eta galdera ugari geratu zaizkit airean.

Nola arraio erakutsiko zaie ikasleei mugikorra ongi erabiltzen, helduok (irakasleek barne) ez dugunean ongi erabiltzen, eta mugikorraren ohartarazpenen menpe (batzuetan obsesiboki) bizi garenean? Ikasgai jakinetan baliatze tresna interesgarria bada, ezin al da gauza bera egin ikastetxeko ordenagailuak erabiliz? Ala ikasleak erakarrirri behar horrek, teknologiaren lilurak, harrapatuta gauzka? Ez al da hein batean mugikorra ere batzuen eta besteen arteko desoreka (ekonomiko sozialak) azpimarratzeko eta arrakalak handitze modua? Ikastetxe batzuetan ari diren moduan, gelan ez baina jolasorduan (aisialdian) mugikorra erabiltzen uztea ez al da pixka bat tristeia, hain juxtu pan-

tailari begira egon ordez elkarrekin jolasteko eta dibertitzeko tarte denean? Zenbateraino da hezigarria mugikorra? Pedagogikoki baino gehiago, ez al dira praktikan bestelako erabilerak nagusituko? Bestelako erabilera horietan, zer da mugikorra egoki erabiltzea, ez al da sakelakoa mezuak bidali eta partekatzeko, lagunekin eta gainerakoekin solastatzeko... alegia ikastorduetatik kanpoko jardunerako? Eta ildo berean, egoki erabiltzen ez al lukete -nagusiki-etxean irakatsi behar? Izan ere, ohiko moduan, eskolatik harago doan gaia da: 8-9 urteko haurrek mugikorra izatea (jaunartzetako opari izarra omen) badu zentzurik?

15 urtetik beherako ikasleek debekatu dute mugikorra Ipar Euskal Herriko ikastetxeetan. Hegoaldean, eskola bakoitzaren bizkar geratzen da erabakia eta hala berretsi dute Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak. Afera mahaigaineratu den honetan, baina, agian une aproposa izan daiteke irizpide eta norabide bateratuak finkatzeko, beste gai askotan bezalatsu.

EKONOMIAREN TALAIAN

Eraldatu dezagun industria militarra



Juan Mari Arregi

Gerra batean -deklaratuta egon edo ez-, haurren sarraski bat gertatzen denean eta arma, lehergailu nahiz munizioaren jatorria Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan dagoela jakiten denean, jende guztia antimilitarista bihurtzen da eta politikariek adierazpenak egiten dituzte gerra hori kondenatzen. Badaude boikota eta armak ez saltzea eskatzen dutenak; aireportu eta itsas portuetan horiek esportatzea eragozteko mugimenduak ere sortzen dira, Saudi Arabiara eramaten dituzten armekin Bilboko portuan gertatu bezala.

Baina denbora igarotzen da eta Yemengo edo beste herrialdeetako gerra irudi ikaragarriak urrundu egiten dira. Eta pentsaera militarista itzuli, industria militarren eta negozioaren defendatzaileen eskutik. Normalean, arduradun politiko, sindikal eta sozial horiek esan ohi dute beti izan direla bizitzaren aldekoak "terrorismoaren" eta "biolentzia ororen" aurrean.

Saudia Arabiak Yemenen haurren kontra egindako sarraskiaren ondoren, horixe da gertatzen ari dena PSOEren Gobernuan herrialde arabiarri salduetako 400 bonba "gidaturekin". Ondo gelditzeko iragarri zuen bertan behera geratzen zela salmenta, baina orain, sokatik zintzilik geratu da eta bonbak saltzea erabaki du. Navantiako ontzioletako andaluziar langileak kalera atera dira enpleguaren defentsan, arabiarrek mehatxu egin baitute bost korbetaren eskaria bertan behera utziko dutela; ez dezagun ahaztu, gerrarako ontziak dira korbetak, eta hiltzeko balio dute.

Koherente izateko unea da, industria militarra goitik behera eraldatzekoa, zibil bihurtu arte. Lehenago egin izan da, baita Euskal Herrian ere. Gobernuak ezin gaitu tuntuntzat hartu "irtenbide diplomatikoak" bilatzen ari dela esanez, badakigu gezurrean eta manipulazioan oinarriturik daudela. Lehergailuak Saudi Arabiara iritsiko dira.



JON AURTENETXE

Mobilizazioak, Espainiako txirrindulari itzuliaren aurrean

EUSKAL HERRIA. Espainiako itzulia Euskal Herritik pasatu da eta horren aurrean bide bazterretara atera da jende ugari ikurrin eta banderolak soinean hartuta, "Etorkizuna gure esku dago" eta "Ez da kirol hutsa. La vuelta kanpora" aldarrikatuz, besteak beste. Gure Esku Dagok aurretik eskatu moduan, erabakitze eskubidearen aldeko mezuz bete dira errepide bazterrak.

Hondarribiko Alardearen soka luzea

Argia

Astebete geroago, zeresana ematen jarraitzen dute Alardearen egunean Hondarribian ikusi eta bizitako gertakariak. Jaizkibel konpainiak instituzioengan jarri du fokua: bi hamarkadaz utzikieriaz jokatu izana leporatu die eta "soluzio eta normalizazioaren bidean urratsak emateko lanketa" eskatu dute.

Salaketak

Bai Kazetarien Euskal Elkargoak, bai Hekime-nek Alardearen berri ematen ari ziren kazetarien aurkako erasoak gaitzetsi dituzte, kazetariei "babes osoa" eskainiz eta informazioarako eta adierazpen askatasunerako eskubideak aldarrikatuz.

Posizionatzeko

Jaizkibel konpainiak egindako balorazioan, instituzioei posizionatzeko eskatu die, "alarde bakar bat, publikoa eta parekidea lortzeko". Alarde Fundazioak berriz, Alarde tradizionalako publikoak erasoak jasane zituela salatu du.

Ikerketa

Jaurlaritzak jakinarazi du Jaizkibel Konpainiari egin zizkieten erasoak ikertzeko, grabazioak aztertzeari ekingo diotela. Bestalde, Cristina Uriarte Hezkuntza sailburua Alarde diskriminatzalea babesten agertu da hainbat iruditan.

MIGRAZIOA



10.000

polizia iragarri ditu 2020rako Europako mugetan Jean Claude Juncker Europako Batzordeko presidenteari.

2

helburu aipatu ditu: migratzaileen etorrera kontrolatzea batetik, "atzeritarren aurkako eskuin muturreko jarrerak apaltzen saiatzea" bestetik.



FABIAN TOMASI

Fabian Tomasi argentinarra hil da, agrotokoen eta transgenikoen kontrako borrokan erreferentea. Soja laborantzara bideratutako landa batean egin zuen lan eta fumigatzeko erabiltzen ziren agrotokoei eragindako gaixotasunak hil du.



BESTE ZINEMALDIA

Donostiako zinemaldi alternatiboak errefuxiatuak eta okupazioa izango dituz ardatz, hamargarren urteurrenean. Txantxarreka eta Alde Zaharreko gaztetxeetan botako dituzte pelikulak.



BULKADA BERRIAK

1.000 gazte baino gehiagok bat egin dute Ernai eta Aitzina gazte antolakundeen sustaturiko "Bulkada berrien garaia da" dinamikaren aurkezpenarekin. Euskal Herri sozialista eta feministaren alde borrokan jarraitzeko deia egin dute.

Dena xahututakoan zer?

Nauru uhartean jada gertatu da etorkizuna



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Harkaitz idor bat itsasoaren erdian, hondartza izanak kai abandonatu bihurtuta, kokondo lirainen ordeztu garabi herdoilduak... Nauru uhartera iristen diren bidaiari bakanek ez dute aurkituko Itsaso Bareko paradisurik. Halako zerbait inoiz egon bazen, ahaztua dute nauruarrek. Beren oinpean aurkitutako fosfatoaren ustiaketak aberats zirela sinestera eraman zituen urte batzuen tartean. Xahuketaren ostean, beren miseria partekatu behar dute uhartera urrundik ekarritako errefuxiatuekin.

Irailaren 4koa ez du erraz ahaztuko Barbara Dreaver kazetariak. Zeelanda Berriko TVNZ katearen erreportari joana zen Naurura, Itsaso Bareko Uharteen Forumaren berri ematera. Tartean, uhartetik irten ezin den errefuxiatu afganiar bat elkarriketatu zuen eta handik laster atxilotu zuten poliziek, ordu luzez preso eduki eta kazetari lana egiteko baimena kendu. Kazetariak hemen lan egiteko 5.800 dolar pagatu behar duten baimena, alegia.

Ez da denbora asko jakin zela Nauruko eremu itxi batean Australiak zerratuta dauzkan zientoka errefuxiatuetako batzuk beren etsipenean gose greban sartu zirela; batzuk suizidio ahaleginera ere iritsiak ziren. Iheslarien aldeko ekintzaileak saiatu ziren gaia sartzen Itsaso Bareko Uharteen Forumaren agendan, baina alferrik: errefuxiatuak ezin dira aipatu ere. Funtsean, planetako herrialde independente ñimiñoenetakoa den Nauruk bere diru-iturri nagusizat dauzkalako.

21 kilometro koadro eta 10.000 biztanle baino ez dituen Nauruko errepublikak lur-mutur txiki horretan hartu ditu 1.000 errefuxiatu eta asilo eskatzaile Asia urruneko gerra eta bortizkerietatik ihesi Australian sartu nahi izan zutenak. Australiak, ordeztu, aterpetzeko ordeztu Nauru eta Manus -hau Papua-Ginea Berriarena- uharreetara eraman zituen. Naururi dagokionez, 400 bat iheslari dauzkate eremu hesitu batean preso eta handi pasa ostean libre irten direnak

ezin dira uhartetik irten, lanik gabe ahal bezala bizirautea kondenatuta.

Amnistia Internazionalak krisi humanitario honetaz zabalduetako txostenean dioenez "agiri askok eta baita Nazio Batuen Erakundearen adituek ere erakutsi dute sistema honetan Australiak preso dauzkan iheslari eta asilo eskatzaileek era guztietako tratatu txarrak jasaten dituztela".

Nauruko Gobernuaren diru-iturri nagusietakoa da iheslariok etxean edukitzearen truke Australiak pagatzen dion kalte-ordaina. Baina agintariak baino onura handiagoa ateratzen diote presondegia kudeatzen dutenek: "Kontrata pribatu nagusia -dio Amnistia Internazionalak- Broadspectrum da, hiru urteko kontratuaren truke 1.900 milioi dolar jasotzen dituen. Broadspectrum 2016tik Ferrovial multinazional espainiarrena da".

Baina Naurun gauzak ez dira beti horrela izan, atzerriko herrialde baten kartzelazain izatera makurtu beharra gauza berria da. Izan ziren garai oparoagoak hemen ere. Hain oparoak, ezen per capita errentan munduko herrialde aberatsenetakoa izana baita Nauru. Ez hain aspaldi, gainera. Naururi egokitu zaio paradisu itxi bat izatetik meatzaritza industrialean murgildu eta ustez aberastera pasatzea, ondoren basamortu post-industrial latzenean hondoratze. Eta dena ehun urteko tarte laburrean.

1798. urtean Naurun lehenbizikoz lehorreratu ziren marinel mendebal-



darrak harrituta geratu omen ziren uharteen eta bere biztanleen edertasunarekin: *Pleasant Island* deitu zioten, uharre atsegina. XIX. mende amaieran ehunka urte lehenago bezalatsu bizitzaren jarraitzen zuten, garaiko argazkietan ageri denez. Baina XX.aren hasieran *Pacific Island Company*-rentzako Albert Ellis geologoa ohartu zen paradisu urrun haren zorupean fosfatoa zetzala.

Paradisua harrobi-zulo bihurtu

Pleasant Island laster bilakatu zen harrobi handi bat, zeinetan XX. mendean zehar konpainia australiar eta zeelanda-berritarrek ustiatzen zuten begi bistan azaltzen zen fosfatoa. Tarte horretan, Nauru pasatu zen Alemaniaren kolonia izatetik Britainiar Inperioarena izatera, gero Australiarena.

Nekazaritza industrialaren *boom*-arekin, Nauruko fosfatoak berdatzen zituen Australia eta Zeelanda Berriko zelai eta soroak. Garairik onenetan urtean 100 milioi dolarretik gora mugitzera iritsi arren, uharreko fosfatoaren etekinaren %2 baizik ez zitzaizkion itzultzen nauruarrei.

British Phosphate Commission erakunde ilunak kudetu zuen negozioa 1968a arte. Urte horretan lortu zuten independentzia nauruarrek. Hammer DeRoburt lehendakari berriak fosfatoa nazionalizatu zuen, haren kudeaketarako sortuz *Nauru Phosphate Corporation* konpainia. Harrobi handiak jarraitu zuen lurzorua zulatzen eta Nauru iritsi



'Roads and Kingdoms' magazinerako Vlad Sokhinek egindako argazkian, Nauruko fosfatoak itsasontzietan zamatzeko erabilitako kai abandonatuak, herdoildu eta suntsitze bidean. Nekazaritza industrialik ez zen izango lurpeko fosfato mineralik gabe eta Australiako zein Zeelanda Berriko nekazariak erruz erabili zuten Naurukoa. Agortu zen arte, haren gainean bizi ziren jendeak miseriarik handienetan lagata.

zen estatistiketan munduko herrialderik aberatsenetakoa izatera per capita errentaren arabera.

Fosfatoaren etekinen parte bat agintariak inbertsio funts batean jokatzen zuten eta beste partearekin herritarren bizimodu gero eta lasaiagoa finantziazten. Dena doan zen nauruarrentzako, zergarik batere ez. Lantzeko moduko lurrik ez zenez, nekazaritza fini zen. Arrantzaleek beren lana utzi zuten. Harrobiak lanetarako inguruko uharteetako obreroak ekarri zituzten. Nauruarrak hegazkinez joan zitezkeen Hawaii, Fiji edo are Singapurreraino bidaiatzera. Autorik modernoek inportatu ziren... bizikletaz kostaz-kosta bisitatzeko goiz bat aski duen uharte batera!

1921etik 100 milioi tona ongarri lurrrari kenduta, 2000. urterako agortuak

ziren Nauruko fosfatoak. Soldatarik ez, langile atzeritarrek ihes egin zuten. Tartean, gobernu saiatu zen alternatiba ekonomiko bila, batik bat fosfatoarekin metatutako funtsa baliatuz. Zenbait inbertsio bitxi egin zuten atzerrian, hegazkin handi, etxe-orratz eta istorio, laster porrot bilakatu zirenak.

Paradisu fiskal ere bilakatu zuten uharteak, mafia eta diru zuriketazko hainbat eskandalurekin lotuta agertzeraino. Nekazaritza aukera guztiak agortuta, larrialdian mesede egin nahian bezala, Australiak eskaini zien berak errefusatzeko dituen etorkinen kartelazain izatea. Estatu baten porrota.

Lurzorua %80 fosfato bila harrotuta, Nauru harkaitz lehor bat da ozeanoaren erdian. Behialako zuhaitz eta landare ugarietatik deus gutxi geratzen da. Nekazaritzako lurrik ez eta egin

nahiko luketenek baratzea nola egiten zen ahaztuta. Langabeziak %80 gaindizten duenez, naurutar batzuk hasi dira berriro arrantzan.

Oihanetik modernitatara eta ondoren infernu post-industrialerako bidaiari, Nauruko jendeak galdu dituzte bakea, natura, bizimodua, lana, kultura, hizkuntza hein handi batean... eta osasuna. Gizonen bizi itxaropena 60 urtekoa da, 68koa emakumeena. Herritarren %70ek obesitatea nozitzen dute, %40 dira diabetikoak.

Elikadura errotik aldatu baitzaie: Ozeano Bareko beste uharte kolonizatu askotan bezala aspalditik dena da *Spam* Nauruko sukaldeetan, urrutitik ekarritako jaki industrial, gizenkor eta ontziratatuak. Limoi zukutuaren azala bezain idor utzitako uharte suntsituko *low cost* jendearentzako zabor-jana. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Ezin zara torturaren zamapean egon bizi guztian»

Martin Orbe

Abadea ere torturatua

Martin Orbek bazuen lagun bat, Eusebio Martija, inoiz hari zelan zegoen galdetu eta “Ederto, xehetasunetan sartu gabe”, Martini erantzun ohi ziona. Xehetasunetan sartu gabe Martin Orberen bizia ere: hierarkiatik aparteko apaiza, irakaslea, torturatua, Zamorako kartzelan egona, Gogor taldekoa, UEUren gidari... Xehetasunetan sartzera egin dugu, Orberen lagun Martija hark ez bezala. Nola esango nizuke, bada?

Testua: Miel A. Elustondo

Argazkiak: Zaldi Ero

1958an apaiztu zinen. Handik bi urtera, 1960an, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 339 abadek Francoren Erregimenaren gehiegikeriak salatzeke gutuna idatzi eta bidali zieten Espainiako goetzainei, Nuntzioari eta Vatikanoko Estatu Idazkaritzari.

Nire izena ez duzu han ikusi... Zeanur-in nengoen, joan berritan. Gutunaren eragileek ez ninduten ezagutzen, herrian lehenagotik zegoen abadea baino, abade oso ezaguna, adinekoa, Gabriel Manterola.

Labayru Institutuko buru Ander Manterolaren osaba. Ingalaterran hamar urtez erbesteratua egon zen Gabriel Manterola, *Ekin* euskarazko aldizkariaren zuzendari eta idazle...

Horixe! Hura zen erreferente nagusia,

normala denez. Asko estimatzen nuen Gabriel. Hura beti liburu irakurtzen-eta bai, baina ez oso gizon praktikoa. Zerbait esan zidan, baina xehetasunik gabe. Ni, bestalde, Zeanuriko Lanbide Eskolan nengoen irakasle, nahiko lotuta alde horretatik. Julen Kaltzada Orozkon zegoen... Ibilgailurik ere ez neukan, baina Julenekin komentatzeko asmoa hartu nuen. Bitarte horretan, sinadurak argitaratu zituzten eta hortxe gelditu nintzen ni, sinatu barik.

Garai berri bat etorri zen...

Seminarioan ezagutu ez nuen giroa. Oso urte mugituak izan ziren. Gauza bat baino gehiago izan ziren. Abade gaztea nintzen, elizako neure egitekoak bete behar nituen, eta gainera, irakasle nintzen herriko lanbide eskolan, Zeanu-

Martin Orbe Monasterio

Errigoiti, 1934

Abade Zeanurikoa, hogeitaz urtez. Gogor taldekoa. Espainiako konkordatu kartzelan preso eduki zuten 1969tik 1972ra Zamoran. Gordin kontatuak ditu torturak *Zamorako apaiz-kartzela* (Txalaparta, 2011) eta *Apaizak ere torturatuak* (Intxorta 1937, 2017) liburuetan. Espetxetik irten eta, berriz atxilo hartu baino lehen, Ipar Euskal Herrira ihes egin zuen. Udako Euskal Unibertsitatea gidatu zuen 1976tik 1983ra. UEUren Merezimendu saria jaso zuen 2012an. Euskaltzain ohorezko ere bada. Abade irauten du.



rin. Abade gaztea nintzela esan dut, eta abade gazteak gogo berezia izaten du gazteekin lan egiteko. Gu apaiztu eta gutxira Herri Gaztedi hasi zen. Gipuzkoatik etorri zen Bizkaira, Valentin Zamorak ekarrita. Ander Manterolarekin kontaktatu zuen lehenengo. Ikastaro bat antolatu zuten Bilbon, eta herrietako abadeoi gazteak bidaltzeko eskatu ziguten. Nik bost bidali nituen, kategoriako mutilak bostok. Herri Gaztedi benetako eskola izan zen guretzat. Gure pastoral lana egiteko beste ikuspegi bat eman zigun. Seminarioan goitik beherantz lan egiten irakatsi ziguten, goian dagoen Jainkoaren irakaspena behean dagoen herriari transmititzen. Herri Gaztedik, aldiz, guztiz alderantzizko bidea irakatsi zigun: “Hor dugu jendartea, hor herria –Euskal Herria, bere arazoen jabe–, hortik abiatuta, nola txertatu herri horretan Jainkoaren mezua?”. Orduantxe ikasi genuen elizan –eta Herri Gaztedin–, seglarak zirela inportanteak. Sekulako ikasbidea izan genuen Herri Gaztedi.

1964an, Bigarren Kontzilioa hasi zuen eliza katolikoak. Horrek zuen bidea hauspotu zuen, inondik ere.

Nola esango nizuke, bada? Vatikanoko Bigarrenak gure bidea berretsi baino ez zuen egin. Gogoratzen naiz Herri Gaztedi talde bat sortu zela Karrantzan, eta bertako batek esan zuela: “Behin jarriko dute baserritarra aita santu [Joan XXIII.a], eta saltsa galanta sortu du!”...

Urte berean hasi zen Patxi Bilbao abadea Gamizen (Bizkaia) salatzen udal agintariek Espainiako bandera eliza barruraino sartzen zutela.

Bai. Herri Gaztedik bazuen arduradun bat –kontziliarioa deitzen genuena–, eta gu ere elkartzen hasi ginen, batzarrak egiten. Hori indartu egin zen eta horrela etorri zen gero Derioko itxialdia, 1968ko azaroan. 60 apaiz zarratu ginen, eta hilabete egin nuen... Hala ere, ez nintzateke zuzena izango Zeanuriko lanbide eskolako lana aipatuko ez banu, asko lagundu zidan eta. Hara joan eta hiru urtera eskolako zuzendari egin ninduten, eta hor dator kontua. Ikasleen arazo asko zuzendariak entzun behar izaten zituen. Ama batek: “Gure semeak dio azterketa ondo egin duela, baina suspentitu egin dutela”. Beste batek: “Hortxe dago mutil bat, etorri gura du, baina ez dauka dirurik eskola pagatzeko”... Ez da





berdin jendearekin harremanak eduki –nahiz eta oso harreman onak eduki–, abade huts modura, edo abade eta irakasle edo langile modura.

Zer esan gura duzu?

Nola esango nizuke, bada? Bizitzaren alderdi praktikoak hor direla beti. Ama bat semearen problemak kontatzen etorri eta ez diozu esango hiru Agur Maria errezatzeko, ezta? Eta lana ere, eskolako lana eta abade lana ez dira berdin: goizeko zazpitan meza ematen nuen, eta eskolan nintzen zortzietan, eguerdi arte. Ordu bietan berriro eskolara, seirak arte. Oso historia polita da Zea-nuriko lanbide eskolarena. Mereziko luke kontatzea. Zer edo zer ere idatzi dut horretaz. Gauza handia izan zen niretzat eskola. Bizitza bera irakatsi zidan. Abade alferra bazara, ezer egin barik bizi zintezke. Jator antza bazara, meza-txoa eman goizean, umetxoei doktrina apur bat irakatsi, gaixo batzuk ikusten joan, pobre batzuei apur bat lagundu... justifikatzen duzu zure lana. Baina neurri handi batean, zeuk egiten duzu zeure programa. Behar bati, lan bati lotuta bazaude, behar horrek lotzen zaitu, eta behar horrek dakarren guztiari ere bai.

Urte mugituak esan duzu arestian. 1968an, ETaren lehen hilak. 1969ko apirilaren 9an, Artekaleko erorikoa. Atxilotuak, batetik, ihes egitea lortzen duen Mikel Etxeberria zauritua, bestetik. Honen taxia hartzen du, Orozkora nahi duela esanez Fermin Monasterio taxilariari. Gero, taxilariaren eta ETako kidearen arteko sesioa, eta Monasterioren heriotza. Atxilotetak datoz ondoren. Tartean, zu.

Mutila Orozkon ezkutatu zen. Andre-gaiari nola edo hala jakinarazi zioten Mikel zaurituta zegoela, eta hark niri, berriz, ea zerbait egin ahal nuen. Andregaia –Laudiokoa–, Maite Idirini joan zitzaion, eta biak elkar hartu eta Areatzako sakramentinoetara joan ziren, Mikelen osaba bat, Paulo, han zegoen eta. Baina sakramentinoen etxea guardia zibilez inguratuta zegoen, eta taxilariari aurrera joateko esan zioten neska biek. Maite Idirinek ezagutzen ninduen, bazekien ni eskolan nengoe-la –Zeanuri eta Areatza tartean zegoen, eta dago eskola–, eta niregana etorri ziren. Mutila larri zaurituta zegoela zioten, eta ni Bilbora joatekoa nintzenez, behar izanez gero han elkartuko ginela

esan nien. Bilbon elkartu gineneko, medikuarekin [Josu Arenaza] egonak ziren, sendagaiak eman zizkien hark, eta gero, Orozkoko abadeak gorde zituen, sagrarioan. Tartean, berriz –segurue-na–, Artekalen atxilotutakoei Orozkoko hirukoaren izena atera zieten, eta hark Mikelen andregaiaren izena eman zuen, eta hark, nirea. Eta etorri ziren niregana.

Non atxilotu zintuzten?

Eskolan. Brigada sozialeko hiru polizia sekreta etorri ziren, eta hura elizbarrutiaren eskola zela esan nien, ea hara sartzeko gotzainaren baimenik zuten galdetu nien. Deia egin nahi zutela esan zidaten: “Baduzue telefonorik?”, eta nik: “Ez”. Eta nik hori esan eta bi minutura, eskolako telefonoak jo zuen. Tailerrean geneukan, eta fuerte jotzen zuen, gero. Baina eurak isilik. Handik gutxira, Criado famatua etorri zen. [Felix Criado Santos, Bilboko Brigada sozialeko polizia burua, torturatu gogorra] Criado ez zegoen txantxetarako. “Zer gotzain eta gotzainondo, gero! Esku-bilurrak eta pistolak!”. Ordurako ikasleak ere jabetu ziren, eta guardia zibilek atera nindute-nean, korridorea egin zuten ikasleek; negarrez, batzuk. “Lortu duzu gura zenue-na!”, guardia batek. Eta nik: “Ez, ez dut gura nuena lortu. Nik bertan gura nuen”. Etxera eraman ninduten, baina nik han ez neukan ezer, eta handik Indautxura.

Ordukoak dira Zamorako apaiz-kartzela eta Apaizak ere torturatuak liburuetan kontatu dituzun izugarrikeriak, urte askoan isilean eraman izan dituzunak.

Isilik, baina ez dira ahazten horiek. Nola esango nizuke, bada? Torturaren esperientzia oso gauza gogorra da, ahal den moduan gainditzeko ahalegintzen gara. Gaztea nintzen orduan, eta nahiz eta tortura gogoan gelditu betiko, ez zait ahazten gure aitak, torturatu egin nindutela entzun zuenean, dirudienez, esan zuena: “Nortzuk dira, bada, horiek, nire semea jotzeko?”. Ezin zara torturaren zamapean egon bizi guztian. Eta, bestalde, bizian izan ditut beste esperientziak, positiboak. Lanbide eskola, orduko lana, oso lagun onak, UEU... Horrekin guztia-rekin beste modura bizi zara. Dena ez da tortura izan.

Hiru urte egin zenituen Zamoran, apaiz kartzelaren liburuan ageri da hori ere.

Bai. Eta handik irten eta Zeanurira nahi

nuen berriro, arrazoi batetarik: oraindino Franco bizi zen, egurra ematen, eta herriaren aurrean erakutsi nahi nuen Franco bizi arren, eta egurra hartu arren, ez gurela beldurtu behar, aurrera egin behar gurela. Baina ez nuen hori pulpitutik esango. Nahi nuen berriro eskolara joan, baina han beste zuzendari bat zuten ordurako. Handik urteetara, eskolako gidari Luis Arregik esan zidan ez nindutela zuzendari berriz hartu, kartzelaz gero markatua nengoela, eta horrek eskolari ez ziola mesederik egiten.

Zuzendari ez, baina han segitu zenuen lanean.

Bai. Handik hiru urtera LAB sortu zen. Bediako Kepa Leiza etorri zitzaidan, eskolako fotokopiagailuan panfletoak botatzeko eskatzen. Eta Euskal Herriaren historia konplikatu! Andoni Unzu, orain PSOEkoa, etortzen zen paper haien bila. Pinudi batean egoten nintzen, txabolatxo batean, zain. Bilbora baino lehen, handik pasatzen zen propaganda. Unzu motortxo batean etortzen zen. Batzuetan ez zuen propaganda eramaten: "Gaur ez ditut eroango. Gehiago behar ditut. Datorren astera-ko hainbeste egin". Noizbehinka ez zen bila etortzen, eta mila panfleto ateratzea baino zailago da erretzen. Gure Andoni Unzularen gorabeherak.

1972an Iparraldean zaitugu, iheslari.

Kepa Leiza atxilotu zuten, eta polizia berriro hurreratzen ari zitzaidala kon-



Ezkerretara, Martin Orbe, Zeanuriko lanbide eskolako zuzendari zen garaian. Ondoan, Luis Arregi du, eskolaren eragileetako.

» "Eskolako lana eta abade lana ez dira berdin: ama bat semearen problemak kontatzen etorri eta ez diozu esango hiru Agur Maria errezatzeko, ezta?"

turatu nintzen. Baina nik ez nuen berriro kartzelara joateko asmorik. Kurtso hasiera zen, lanbide eskolan ni, eta poliziak etorri ziren. Teilapetxu batean ostendu nintzen, paper artean sartuta. "Hemen behar du!", zioten poliziek, baina eskolakoek ezetz, irakasleen organigrama erakutsiz: "Gaur ez du hemen egon beharrik. Ez da hemen". Gero, irakasle batek atera ninduen handik, autotan. Cobrecesera (Santander, Espainia) nahi izan nuen, zistertarren komentura, Julen [Kaltzada] eta biok egonak ginen han, baina ostaturik ez zutela esan ziguten, eta Bien Aparecidara [Ampuero, Santander] joan nintzen, trinitarioetara. Oso ondo hartu ninduten. Nire egoera azaldu nien, botazioa egin zuten, eta baietz erabaki zuten. Eta han egon nintzen, gordeta. Egun batean, Algortako trinitarioak joan ziren hara bisitan, eta badaezpada, ez nintzan inork ezagutu, gelan eman nuen egun guztia. Radio Paris entzuten nuen egunero, eta egun batean, Franco azkenetan zegoela esan zuten. Trinitarioek ere galdetzen zidaten

zer esan ote zuen Radio Parísek, eta nik, entzun-dakoa, Franco azkenetan zegoela. Eta haietako batek: "Zuk daukazu, zuk, Franco hiltzeko gogoal".

Handik, bai, Iparraldera...

Bai. Plana eginu neukan. Iruñera eramango ninduten, eta handik, sakramentino batzuen laguntzarekin, Iparralderantz. Gero, bakarrik pasatuko omen nintzen beste aldera, Urepelera. Eta ez dakit

nondik joan nintzen ere. Mendian gora joan eta aurkitu nuen bidea. Eta Urepelerrantz nindoala, artzain bat topatu nuen. "Zer, zu ere Franco gaizto horren iheska zatoz?". "Bai, bai". Eta Urepelen Maite Idirinek-eta hartu ninduen. Haiekin egin nuen aldi bat, beste bolada bat Zeberio-ko abade Amadeo Rementeriaeren etxean -hura ere ihesi joandakoa-, Donibane Lohizune kanpoaldeko beste etxe batean... Azkenetan hantxe egon ziren Jon Idigoras eta emaztea. Horregatik, Jon hil zenean, neuk egin nuen hileta-meza. Horrela historia!

Oraintxe bai, kontatu dituzu zure lagun Eusebio Martijaren "xehetasunak"...

Tira, bada!...

Garai zalapartatsua. "Urte mugituak", zuk esan duzunez.

Xabier Amurizak ondo deskribatu du garai horretako mugimendua bere lanetan. Horregatik, konparazioak egiteak balio ez badu ere, oraingo gazteek ez daukatela guk geneukan garra iruditzen zait. Jendeak eskapismoa egin du, uste dugu instituzioek egingo dutela dena, eta ez da horrela. Nola esango nizu, bada? Egun baten, Bittor Kapanaga ezagutu nuen, Gontzal Mendibil bidez. Gizon jatorra, handia zen Bittor. Gogortzen naiz, behin, kartzelatik irten eta berarekin egon nintzela. Ordurako han ari ziren ETA VI.a, EMK, LKI... eta hau eta hura, eta esan zidan Bittorrekin: "Lur ona dagoen tokian, denetarik erretzen da: belar ederra, sasia, asuna... Asunak kalte egiten du, eta kendu egiten dugu. Sasiak ere bai... baina lurra, hor gelditzen da. Horixe da Euskal Herria, lur honek emango du fruitua". "Ea, bada, Bittor, hala bedi!", esan nion... ■



MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu zailetarako

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otadui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

Eskuin muturra garaitu

Etorkinen eta errefuxiatuen etorrera udako albistegietako protagonista izan da. Ez da gauza berria, urteak daramatza Europar Batasunak errealtate horren kudeaketa kaskarra egiten. Adierazle gisa dugu eskuin muturreko populismoaren gorakada hauteskundeetan. Muturreko zentro progresistaren hegemonia garaietan gutxi hitz egiten da eskuin populistaren arrakasta ulertzeko sakoneko faktoreez. Egokitasun politikoaren diskurtsoak, nagusitasun morala adieraziz, nahiago du eskuin muturreko boto-emailea kritikatu humanitarismo teoriko-filosofiko batetik, benetako arazoaren erroa den neoliberalismoaren aurka egitea baino.

Izan ere, herritar batzuek etorkinek dakartzaten onurak maizago gozatzen dituzten artean, beste batzuek eragozpenak ikusten dituzte egunerokotasunean. Erdi-mailako klasearen zati esanguratsu batek nekez ordaindu ahal izango lituzke etxeko garbitzaileak eta menpeko familiarren zaintza etorkinik ez balego, ez behintzat egungo ordu kopuru berean. Klase apalenei aldiz, azkar exijitzen zaie ekonomian master bat, uler dezaten beraien lan baldintzen kaskartzea ez dela nagusiki etorkinen etorreragatik, baizik eta kapitalismo neoliberalaren (abstraktuan!) ondorioagatik; ez badiete zuzenean esaten *meritukrazia* kontua dela eta alferrak direla. Langile klase pobretuek goizetik gauera jakin behar omen dute ez direla gizarte segmentu ahulena, eta beraz, prest agertu behar dute beraien pastel zati txikiaren parte bat partekatzen ailegatu berriekin. Hori guztia gutxi bada, muturreko zentro progresistak uste du klase apalek kulturartekotasunean dotoreak izan behar dutela biztanle berriekin harremanetan jartzeko, klase ertain aberatsak abandonatu dituen auzoetan eta eskoletan.



Asier Blas Mendoza

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Klase apalek kulturartekotasunean dotoreak izan behar dute biztanle berriekin harremanetan jartzeko, klase ertain aberatsak abandonatu dituen auzoetan eta eskoletan

Egia esan, auzo pobreetako biztanleak ez dira izango dotoreak progresismoan, baina ari dira eskarmentua hartzen. Arazoak arazo, geroz eta gehiago ari dira harremanak lantzen diskurtso moralak egiten dituzten gehiengoaren laguntza barik. Benetako kultur-

tekotasuna egiten dutenak, hiri-lur segregazioaz gain, eskola segregazioa pairatzera behartu dituzte klase ertain ilustratuek, horrela, hezkuntza maila baxuagoa izatera derrigortuta dauden moduan, sare sozial pribilegiatuetatik baztertuta daude era sistematikoan.

Auzoetan elkarbizitza arazoak egotea ez da arraroa, arraroa ez den bezala soldata dumpinga dagoenean edo diru laguntzengatik lehiakortasuna egotean ezinikusiak sortzea. Adibidez, zergatik progresismo hegemonikoarentzat lehentasuna da Hungariako Gobernuak duen jarrera, herrialde horretan egon nahi ez duten etorkin eta errefuxiatuekin, eta ez berriz, herrialde horretan bertan urtero beraien etxeetan hotzez hiltzen diren 150 pertsonak? Arazo sozial horietan atentzioa jartzen du eskuin muturrak, errezeta erraz bat eskainiz etorkinak estigmatizatuz eta jazarritz. Argudio antzua da, badakigu etorkinena ez dela egiturazko arazoa. Pertsonen historia migrazioen historia da, denak gara edo izan gara etorkinak. Kontua da ez dagoela borondaterik eskuin muturraren diskurtsoari aurre egiteko neoliberalismoaren aurkako diskurtso eta praxi erradikal batekin. Aberatsek pobreekin laguntza humanitarioaren auto-satisfazioa beti disfrutatu dute eta nago egun horren antzeko zer edo zer dagoela etorkinen aldeko diskurtso eta praxi hegemonikoetan.

Eskuin muturra garaitzeko jendearen arazo materialez (etxebizitza, soldatak, aberastasunaren banaketa...) hitz egin behar da, eta aldi berean, segregazioaren aurka gogor egin behar da. Lan egiteko paperik ez izatea segregatzea da eta horrek eskulanaren prezioa merkatzen du. Antzera segurtasuna hobetzeko, desberdinen arteko elkar ezagutza errazteko eta justizia soziala bultzatzeko hiri-lur eta eskola segregazioekin bukatu behar da. ■

Zuri, behin-behineko kontratupeko horri!

Hitzarmenak kontratu bilakatu ordez kontrakotu ditugun garai haue-tan, berrogeitaka urte lan kontratu amaigabeen arituta, bizitzak ziurgabetasun osoan ezarri nauenean, urtero lan kontratua luzatuko ala etengo zaien jakin gabe eta etorkizuna etorkin duten arren, daukaten onena ematen ari diren langile horiei, begirunez eta goxotik.

Oharra:

1. Goitik behera eta ezkerretik eskui-nera irakurtzeko antolatuta daude bertsoak, gure gizarteko politikaren ildo eta noranzko berari jarraituz.
2. Ez dut ezer bare, barraskilo, apo, zizare... eta kuadrila horretakoen kontra, nire landareak jaten dituztenak badira ere, horiek ere bizi behar dute. Aldiz, dena dut gizaki irensleen eta giza esku-bideen urraketan ari diren zomoroen eta sitsen kontra.

*Hona jubilatut bat
eta bere penak
bota baitizkiote
landare onenak
aldakaitzak kenduta
loretan zeudenak
sasoiko, ganorazko,
polit, ederrenak
bat-batean zapuztuz
ilusio denak.*

*Hoberenak kenduta
nagusi bareak
barraskilo, apoak
eta zizareak
ziraun, musker, satitsu,
sator, uhandreak
arrabio, txalburu
nahiz erbinudeak...
Bidea noren esku
du eskubideak?*



Iñaki Murua

BERTSOLARIA ETA IRAKASLE OHIA

*Bale, indarrari men
egin eta kito!
ilusio gazteak
urkabeen ito,
sistemak burujabe
ez zaitu begiko,
zuk bai, zuk ez, agian...
zuk duzu segiko...
Esperantza izpi bat:
deus ez da betiko!*

*Non da duintasuna,
non errespetua,
non da gizalegea,
bidezko tratua;
giza haragijalez
lepo merkatua,
balioek balio
arras merketua:
karnetak ziurtatzen
du eserlekua.*

*Bat bazen guztietan
distiratsuena
eguzkiaren pare
argia zuena,
bazekien egiten
"nirea zuena",
zorrotza, ulerkorra
jatorra, zuzena
eta berak jaso du
ordain antzuena.*

*Estomago ttikia
nik ez dut maitea
ez lider antzua ez
bere elitea;
ez lerre jariorik
utikan koipea!
Baina zeinen zaila den
zerbait egitea,
lagundu nahi izanda
nola, ez jakitea.*

*Agur sagar beltzaran,
mahatsondo lerdan,
agur irrifar xume,
begirada garden,
berdin da eme, homo,
trans edota ar den,
etekina lortzea
helburu nabarmen,
esklabotza berpiztu
behar izan arren!*

*Egun tristeak dira
ez gaude galako
ekaitza gure baitan
pausatu delako,
animoak ematen
dabil jende franko,
benetan ari dela
pentsatu beharko...
baina konponbidea
beti da biharko.*

*Bart batek telefonoz
tori xake-mate:
"Nitaz ia gehiegi
probestu zarete".
Ez nuen ba egin nahi
inola ere kalte,
oharkabe sisteman
ni(e)re banaiz parte
ez dut onik izango
hortik irten arte. ■*

Doinua: Agur sagar beltzaran. Anje Duhalde.

Norbaitek batuko dituen esperantzarekin



Oier Guilan
ANTZERKILARIA

Ez ditut oroitzen bizitza aldatu didaten uneak. Lausotzen ari zait atera ez ditudan argazkien oroitzapena. Ezin dut nire liburu fabortoetako pasarterik buruz esan. Ez naiz gehien inpaktatu nauten filmetako dialogo bakar bat erreperikatzeko gai. Haietako bakoitzak utzi zidan arrastoa oroitzen dut soilik, azalean biziraun didan sentsazio orokorra.

Eulia ari du oroimenean: memoria selektiboa da, beti. Bizitakotik behin eta berriz azpimarratzen, kontatzen, birkontatzen ez dena ez omen da memorian finkatzen. Literaturara ekarrita, Julio Cortazarrek "liburu bat azpimarratzen duenak bere burua azpimarratzen du" esaten zuen gutxi gorabehera. Ez ote du gauza bera egiten komunitate batek? Egune-ro gabilta bizitza azpimarratzen, izan ideiak, gertakizunak edo kritikak. Memoria den itsaso ezerezlean zer edo zer finkatu nahian bezala, kamerarik gabe atera nahi genukeen argazki ezinezko bat.

Ahaztura memoriaz beterik dago, ziotson Mario Benedettik. Zer da ba memoria historikoa deitzen zaion hori, ez bada azpimarrak idatzi gabekoen lerro artera zabaltzeko bulkada? Zer errelatoa, ez bada ahazko literaturan egin nahi litzatekeen azpimarra iraunkorra? Neure buruari galdetzen diot, halaber, zenbat kultur esperientzia geratzen ari den nabarmendu gabe euskal kulturaren liburu labainkorrean, nik jakin gabe

bizitza aldatu didaten zenbat izen transmisioaren eulipean?

Gogoeta hauen harira izen bat azpimarratzeko beharra sortu zait berehala: Jose Martin Urrutia *Txotxe*. Urte hasieran utzi gintuen arte ez nion (akaso) behar bezala erreparatu haren eraginari: arte eszenikoen sistemaren aurreko intsumisoa, begirada estetiko ederreko profesionala, su artifizial ikusgarrietatik harago ingurukoaren sua bizirik mantentzen jakin zuen kapitaina, Euskal Talde Antzerki Amateurren (EATAE) elkartearen garaletan antzerki-izurrite kutsakorra. Izango zituen edozeinek bezala argi-itzalak, noski: asko maite duenak asko daki.

Testu, irudi, bizipen kolektibo ugariz osaturiko obra zabala utzi zuen *Txotxe*-k. Euskal antzerkiaren historia ezin da estreinaldiei buruzko titularrekin (soilik) idatzi, eta are gutxiago su artifizialen programa ikusgarriekin, ez bada erre egiten duen sua bera kontatuz. Karrika taldearekin taularatu zuen *Txotxe*-k *Ametsen faktoria*, eta bertan ondo azaltzen denez azpimarra beti da hautua, izan pertsona ala komunitate batena:

"Itsasorantz umezurtz, arima galduak bezala, doaz gure ametsak, pasadizoak, ipuin kontaezinak, hitz jarioak, proklamak, diskurtsoak, eskutitz bukatugabeak, inoiz ikasi ez ditugun otoitzak, izunak, desioak... Gauero botatzen dituzue, eta hor joaten dira errekatik, norbaitek batuko dituen esperantzarekin". ■

Biharamunaz



Castillo Suárez
BLOGARIA
@casti_suarez

Maite ditut haratago eramaten ez zaituzten muxuak, muxuei, bere hutsean, baliorik ez baitiegu ematen gehienetan. Ez galdetu, hortaz, zer egiten nuen industrialde batean, desordutan, musika talde famatu eta on baten road managerrarekin. Baina muxu eman genion elkarri Guardia Zibila hurbildu zenean. Endavant paratzen zuen pegatinari begira egon nintzen, saihetsetik, begiak itxi gabe. Guardia zibilek bakean utzi zuten paperez eta gailuz betetako auto hura eta ni orduan handik atera nintzen eta nirentz abiatu. Euria ari zuela ez nintzen ohartu

ere egin. Maite ditut segidarik ez duten muxuak. Eta ez da koldarra naizelako, domestikotasuna eta aztura maite ez ditudalako baizik. Edo beharbada hori da neure buruari erreperikatzen diodana estua izan nahi dudanean neure buruarekin. Ez galdetu, hortaz, zergatik maite ditudan hoteletako pasabideetako muxuak, txartela eskutan, kamerari ertz batetik begira inoren interesekoa ez dela jakinagatik. Maite ditut beharbada nor bere gelan egongo delako bost minutu geroago etxekoei deika. Izan ere, badago maitasuna baino askoz okerragoa den zerbait: biharamuna. ■

Here to stay!

Etxebizitza eskubide



Katixa Dolhare-Zaldunbide

IDAZLEA

Oporraldi garaia bururatu eta, hara jo eta ke berriz lanean eta *katzakan* aritzeko garaia etorria dela. Aktualitatea ikusiz, nehoiz baino erneago jokatu beharra daukagu. Besteak beste, etxebizitzaren gaia aipatu gogo nuke hemen. Joan den udan, Chairecoop ikerketa tresna ezagutzeko parada ukan genuen Baxenabarren: hori da nazioarteko erakundea, Etxebizitza Kooperatiboa eta Giza Kooperazioaz gogoetatzen laguntzen duena. Hainbat egitura, gobernuz kanpoko erakunde eta unibertsitatek sostengatzen dute. Chairecoopeko kide den Yann Maury unibertsitate irakasle eta ikerlaria Baigorriara gonbidatua zuen horko Unibertsitate Herrikoa deitu elkarteak, eta harekin ere luzaz mintzatu ahal izan gara ekitaldiaren ondotik.

Haren lan ardatza etxebizitzari buruzko kooperazio mugimenduak ezagutzea eta ezagutaraztea da, jendea konbentzitzen entseatuz etorkizun baketsu eta zuzenerako aterabide onena dela. Bi adibide bereziki buruz mintzatu zaigu luzaz. Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) Vermont eskualdean, eta bereziki New Yorkeko Manhattan auzoan, jendeak kooperatiba moduan antolatu dira etxebizitzaren salerosketak osoki kudeatzeko, espekulazioari aurre egiteko asmoz, *Here to stay!* lemapean: Cooper Square kooperatibari esker, *Lower East Side* aldean etxebizitza 500 eta 800 dolar artean eskura daiteke, eta prezio horretan baizik ez saldu. Erroman, berriz, squatter talde ugari kooperatiba gisa antolatzen dira, eta lortzen dute Herriko Etxearekin hitzarmenak izenpetzen.

Esperientzia horiek lotu daitezke, nola ez, Euskal Herrian ezagutzen ditugunekin, autogestioa, horizontaltasuna, auzolana, herritartasuna, kapitalismoaren kontrako borroka ardatz

dituzten horiekin: bertakoak (Gasteizko Errekaleorrena zein hainbat gaztetxe, herritar elkartek, erakunde edo herriko etxeek bultzatutakoak...) baita kanpokoak ere (Notre-Dame-des-Landeseko ZADekoa, Greziakoak, Maputxeen herrietakoak...). Gisa batez, Yann Mauryren solasek soilik berme bat gehiago eman zioten mugimendu horien zilegitasunari.

Baina interesgarriena izan da, ene iduriko, ikerleak Ada Colau Bartzelonako auzapezaz erakutsi duena: nola espekulazioaren kontra eta etxebizitza eskubidearen alde beti borrokatu den pertsona bat indargabetu agertu den behin boterean izanez geroz. Yann Mauryren ustez, Bartzelonan eta Espainian gertatzen dena (bankuek eta pentsio funts amerikarrek gaina hartzea etxebizitzaren kudeaketan) ager daiteke Frantzian ondoko hilabeteetan: Alokairu Apaleko Bizitokiaren egitura publikoko Administrazio Kontseilu Nazionallean, alokatzaileek bi ordezkari baizik ez dauzkate, hogeita hamar pertsonetarik –egoiliarren kontzientzia eskasez edo egituraren araudiengatik; egoera horrek gobernuaren Elan legeari bidea erraztu dio, eta laster bizitoki publiko horiek sar daitezke merkatu arruntetan, delako banku eta funts pentsioak azkarki erakarriz– horrela, gobernu horrek berak aitzin-ikusia duen erretireten erreformaren ondotik, tokian berean prest litezke harrapariak, asurantzak berriak proposatzeko.

Nik ez nezake erran botereak automatikoki usteltzen dituela hautetsiak, batez ere herri ttipietan, baina bai kuraiez beterik segitu beharko duela jendeak, bai tokikoak, bai kanpotik beharturik etorriak, bere oinarritzko eskubideak salbatzeko, kooperazio edo elkarlaguntza moduan. Izanen da lan! ■



Antton Olariaga



EUSKARALDIA DONOSTIA

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra



Eman izena irailaren 20tik aurrera
www.euskaraldia.eus

Zinemaldia orain SSIFF da (baina badaki euskaraz)

Donostiako Zinemaldia ez da aldaketa arriskatuak egiten dituen festibal horietako bat, hori argi dago. Baina epe ertaineko perspektiba hartuta, gauza batzuetan egokitzen jakin du. Adibidez, euskal zinemak jaialdian betetzen duen tokia, duela hamar urterekin alderatuta, handiagoa da. Aurten hamalau izango dira euskarazko lanak, beste inoiz baino gehiago. Erronka orain, publikoak film horiek aukeratzean dago.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

ARGAZKIA: PABLO GOMEZ / ZINEMALDIA

Zinemaldiaren edizio honetako lehen no-bedadea logo aldaketa izan da. Maiatzean aurkeztu zuten jaialdiaren irudi korporatiboari egin dioten *liftinga* eta denetari-ko iritziak probokatu ditu, “betiko maskorra” defendatzeko plastiko beltzaren atzetik oihuka hasiko liratekeenetatik, eskola tuneatzea txalotu dutenetaraino. Eta horrelako debateetan maiz gertatzen den bezala –batez ere iritziak publikatzea haiek pentsatzea baino errazagoa bihurtu den garaiotan–, bat batean diseinu-alorreko aditu bihurtu da Donostia erdia eta Euskal Herriaren laurdena.

Baina bide motz samarra duen debate horretatik harago, piztu da beste bat, arreta gutxixeago lortu duen arren, Zinemaldiaren izenari eta izanari gehiago eragiten diona: festibalak ingelesari eman dio leku zentrala irudi korporatibo berrian. “*San Sebastian International Film Festival*”-en siglak agertzen dira

orain erdi-erdian, SSIFF, bai webgunean, bai karteletan, baita bestelako material informatiboetan ere. Nazioartean hobeto posizionatzeko egin omen dute, nahiz eta sigla berak dituen beste zine jaialdi bat ere badagoen –Silver Springs International Film Festival–; eta gainera, erabaki horren erruz, “Zinemaldia” izenak urtetan euskarari eman dion ikusgarritasuna galduko den, zenbait euskaltzalek kritikatu duten moduan.

Kontrastean, ordea, 66. edizio hau izango da Zinemaldiaren historiako euskaldunena. Inoiz baino euskarazko pelikula gehiago, hamalau; eta haien presentzia ez da mugatuko Euskal Herriko ekoizpenak erakusteko bokazioa daukan Zinemira sailera, nahiz eta atal horretan ere gora egin duen euskarazko ekoizpenen kopuruak.

Hurrengo orrialdeetan elkarriketatu dugun Koldo Almandoz zuzendariak



Oreina eramango du Zuzendari Berriak sailera eta badirudi zeresan handiena eragingo duen aurtengo euskal ekoizpena izango dela, Telmo Esnalen *Dantza*-ren baimenarekin, noski: zumaiaarraren pelikula Sail Ofizialean ikusi ahal izango da, lehiatik kanpo bada ere. Erabaki horrekin Zinemaldiak berretsi du 2014tik egindako politika-aldaketa, gutxienez euskarazko lan bat festibalaren eskapare nagusian jartzeko. Ohitu egin garela dirudi, baina duela lau urte *Loreak* eta *Lasa eta Zabala* Sail Ofizialean ikusi genituen arte, euskal zinemak 25 urteko basamortua bizi izan zuen Donostian –Antxon Ezeizaren *Ke arteko egunak* proiektatu zuten aurretik, 1989ko Sail Ofizialean–.

Etzeko beste mokadu batzuk aipatzen hasita, menuan dago Joseba Sarrionandiaren inguruan hamabi zuzendarik osatu duten *Gure oroitzapenak* ere, baita Josu



Jose Luis Rebordinos,
Zinemaldiko zuzendaria,
festibalaren irudi berriaren
aurkezpenean.

Martinezek zuzendu duen *Jainkoak ez dit barkatzen*, Lezo Urreiztieta marinel abertzalearen ibilera barojianoak berreskuratzen dituen dokumentala, XX. mendeko gure historiaren kapitulu ez oso ezagunak pantailaratzen dituena; Fermin Muguruza Zinemaldira itzuliko da *Black is Beltza* animaziozko lana aurkeztera: irundarrak pantailara eraman du 2014an Harkaitz Canorekin eta Jorge Aldereterekin batera publikatu zuen komikia; eta film laburren artean berri, Zabaltegi-Tabakalera sailean erakutsiko dute Maddi Barberrek zuzendutako *592 metroz goiti*, Suitzako Visions du Réel jaialdi prestigio-tsuan zeresana eman duen lana.

Sail Ofizialari gainera begira

Lehiaketa ofizialean parte hartuko duten pelikulen artean badaude aurretik Torontoko zine festibaletik pasa diren zenbait lan eta Kanadatik datozen al-

bisteak irakurrita, gauza batzuk aurreratu daitezke. Adibidez, Claire Denis-en *High Life*-k zeresana eman dezakeela. Zuzendari frantziar beteranoak zientzia-fikziozko pelikula egin du, baina generoaren gerruntzea zartatu duela diote. "Esperimentala" irakurtzen da kritika batzuetan; "arraroa" beste batzuetan; "nekez sinetsi dezaket filma existitzen denik ere", idatzi du *The Guardian* egunkariak kronikalariak. Gainera, Juliette Binoche eta Robert Pattinson izarrak protagonista izanda, "beste" ikusmin hori ere eragingo du segur aski.

Askok jarriko diote arreta Felix Van Groeningen zuzendariaren *Beautiful Boy* lanari ere, kontuan izanda filmeko protagonistetako bat iaz mundu guztia harritu zuen *Call Me by Your Name*-n agertzen zen Timothée Chalamet dela. Aita-semeen istorio honek, ordea, tenperatura epelagoa markatu du Torontoko

termometroan. Louis Garrel-ek zuzendutako *L'homme fidèle*-k bezala: Philippe Garrel handiaren semea bere bigarren lan luzearekin lehiatuko da Donostian, zuzentzeaz gain aktore lanetan ere ariko da eta, orain arteko kritikak txarrak ez diren arren, Julian Retegiren semearen antzekoa gertatzen zaiola dirudi, "aita hobia zen" esaldia ateratzen zaiola askori haren pelikulak ikusi ondoren.

Aurreikuspenetan sartu beharreko Sail Ofizialeko beste bat Markus Schleinzer zuzendariaren *Angelo* da, XVIII. mendean Afrikako herrialde batean jaioetako haur baten istorioa kontatzen baitu, Europara nola eraman zuten eta nola erabili zuten nobleziaren entretenigarri. Antza denez, filma ez da mugatzen iraganean afrikarrekin egindako astakeriak salatzerara, eta problemaren gaurkotasuna mahai gainean jartzeko modu originalak erabili ditu.

Badira Sail Ofizialean errepikatuko duten zuzendariak, 2011ko Urrezko Maskorra irabazi zuen Isaki Lacuesta adibidez. 2006an zuzendu zuen *La leyenda del tiempo* filmeko pertsonaietako bat berreskuratu du Gironan jaioetako zuzendariak *Entre dos aguas* lanean. Eta Lacuestarekin batera *In Between Days* ikus-entzunezko gutun-trukea egin zuen Naomi Kawase japoniarra ere Donostiako lehiaketara itzuliko da zortzi urteren ondoren: *Vision* filmak Juliette Binoche du protagonista, Claire Denis-en *High Life*-k bezala; baina kasu honetan espazioko trama batean ibili ordez, Japoniako baso batean ikusiko dugu, bere iraganaren bila.

Tematika eta asmoetan ugaritasuna nagusi den lehiaketan, *a priori* arreta deitzen duen beste lan bat Peter Strickland-en *In Fabric* da. Arrazoi batengatik: *thriller* bat egin nahi izan du munduko lekuri aspergarrienetako batean, saltoki handi batean, alegia.

Baina Zinemaldiko sariak eskuratze-ko lehiari aritzen diren filmekin, beti da zaila aurreikuspenak egitea. Beren karrera hondoratzeko moduko lanak aurkeztu dituzten izen handiko zuzendariak ikusi ditugu azken urteetan; baita atzeko atletik sartu ondoren, festibalaren amaieran publikoaren eta kritikaren bizkar gainean igota atera diren zinegile ezezagunak ere. Eta agian horixe da zine jaialdi bati -tira, zineari orokorrean- eskatu behar zaiona: aurreikusi daitekeenaren mugak zalantzan jar ditzala.

Koldo Almandoz

“Beti pelikula bera egitea oso atzerakoia da”



Lander Arretxea Bereziartua

@larretxea

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Ibilbide oparoa du Koldo Almandoz zinegile donostiarrak. Orain jarri dio ordea, lehen aldiz, pelikula konbentziona(ago) bat egiteko erronka bere buruari. Saiakera horren emaitza da *Oreina*. Zuzendari Berriak sailean lehiatuko da Donostiako Zinemaldian eta irailaren 28an zine aretoetan estreinatuko dute. Filmeko lokalizazioak trenez gurutzatzen ditugun bitartean hitz egin dugu berarekin.

Donostiako Easoko Euskotrenen geltokian jarri dugu hitzordua. Tabernazuloko elkarriketek badute bere xarma, baina gaur, topoaren, metroaren edo dena-delakoaren joan-etorrian egingo dugu solasaldia. Donostiatik Oriora eta buelta. Oreina-ko geografia gurutzatuko dugu horrela. Iraila dela sumatzen da, dagoeneko ez dabil horrenbeste jende. Asko bilatu gabe aurkitu dugu patxadaz eseri eta hizketan hasteko tokia.

Protagonista eta istorio asko gurutzatzen dira Oreinan. Nondik tiraka iritsi da gaur ikus dezakeguneraino?

Badago Aginagan etxe bat oso berezia, erdia oso ondo zaindua eta beste erdia desastre bat eginga duena. Jakin-mina piztu zidan. Nor biziko ote da hor? Etxe guztietan dauden familia tirabirak etorri zitzaizkidan burura, eta hortik atera da harietako bat. Gero hori uztartu dut pelikulan sartu nahi nuen beste ideia batekin: denbora asko igarotzen dugula baterako eta besterako joan-etorrietan, bakarrik, eta orduan garela inoiz baino gehiago gu geu. Inori kontatu ezin dizkiogun sekretuekin eta barruan darabizmagun guztiarekin.

Lokalizazioek protagonismo nabarmena dute. Aginaga, Usurbil eta Oria ibaiaren inguruan bidez, normalean oso banatuta erakusten diren hiria eta natura, biak batean erakusten dituzu zuk.

Lokalizazioak ahalik eta gutxien ukitzeko ahalegina egin dugu. Nik paisaia hori errepidetik begiratzen nuen hasieran, eta bertatik ikusten nuena izan zen atentzioa deitu zidana. Trenetik ere egin dut bidaia bizpahiru aldiz, gaur bezala, ibaiaren bi aldeak ze desberdinak diren ikusteko. Batean herriak daude, industriguneak eta bizitza urbanoa; eta beste alde berriz, guztiz basatia da. Zati batzuetan ez dago ezta biderik ere. Horrek eraman nau hausnartzera Euskal Herrian daukagun periferia berezi honetaz. Naturak eta industriguneek, baserriek eta poligonoek bat egiten duten periferia da gurea. Horrek nahasketa interesgarriak dakartza, baita pertsonen artean ere, eta errealtate hori islatu nahi izan dut. Hori da pelikularen geografia edo unibertsoa.

Tokiaren aniztasunak azaltzen du pertsonaien aniztasuna ere: gazte saharar bat, basozain bat, bi bide desberdin hartu dituzten Aginagako bi anaia, aitaren gasolindegian lan egiten duen neska gaztea...

Gidoia idatzi nuenean halako intuizio batetik abiatu nintzen, baina gero grabaketa egin dugunean antzeko errealtatea aurkitu dugu. Ikusi genuen, adibidez, Usurbilen badagoela saharar eta magrebiar komunitate handi bat. Kopapen horietan bizi den jendeaz hitz egin dugu, ekosistema oso interesgarria iruditzen zitzaidalako. Oso gaurkoa da, normalki ditugun aurreiritzietatik urruntzen dena, bai nekazal munduarekin ditugunetatik, eta baita etorkinekin ditugunetatik ere.

Pertsonaia horien hariak gurutzatu egin dira, baina elipsiak ere badaude, eta ez dute itxiera borobilik. Ikusleari ahalegina eskatzen dion lana da Oreina?

Uste dut zor diodala errespetu bat ikusleari eta baduela gaitasuna hutsune horiek betetzeko. Gu pertsonaia hauen bizitzaren momentu batean agertzen gara, eta beste batean desagertu, baina bizitza horiek gerora ere jarraitzen dute. Nire apustua izan da normalki pelikuletan azaltzen ez den jendeaz hitz egitea, jende arruntaz. Izaera konplexuak dituzte, eta aurpegi desberdinak, denok ditugun bezala. Ez dago *Handiarik*, ez dago ezer oso estraordinarioa. Gertatzen zaizkien gauzek ere ezin zuten pentsaezinak izan. Iruditzen zait zinean emozioari gehiegizko garrantzia ematen diogula. Denak izan behar duela emozio bat sortzeko, dena baloratzen dela negar edo barre egiteko gaitasunaren arabera. Ba niri negar egiteko gogo gehien eragiten didatenak telebistako *reality*ak dira. Gainbalorazio horren eta joera horren kontrako pelikula egin nahi izan dut nik. Emozioak egon badaude, baina gure bizitzan bizi ditugun moduan agertzen dira, azpimarratu gabe.

Atentzioa deitu dit anaietako baten pertsonaiak. Azken euskal film luzeetan asko errepikatzen den arketipoa ordezkatzeko du: emozioak kudeatzen ez dakien gizona, gatatzak konpondu beharrean bere hostasunean babesten dena, lehorra...

Egia da azken aldian egin diren filmetan islatuta dagoen zerbaite dela, baina uste dut erantzuten diola errealtate bati. Ba-

liteke belaunaldi kontua izatea, baina nire familiari begiratzen diot, nire gurasoei begiratzen diet, eta uste dut jarraitzen duela horrela izaten. Nire buruari begiratzen ere, hein batean, sentitzen naiz identifikatua horrekin. Pentsa, pertsonaia horren beste anaia ere, beste molde batekoa izanagatik, antzekoa da horretan. Eta beste pertsonaia guztiak ere bai. Oso barrura begira bizi dira.

Pertsonaia horiei gorputza jarri dieten aktoreen artean Ramon Agirre dago. Aurrez ere egin duzu lan berarekin, eta aurtengo Zinemira saria jasoko du egindako bidearen errekonozimendu gisa.

Ramonekin eta beste batzuekin gertatzen zaiguna da, hain gertukoak direnez, ez ditugula nahikoa baloratzen. Iruditzen zaigu gure aktoreak direla, baina Ramonekin egin du lan Almodovarrekin, Hanekerekin... Eta hori egin badu castingak gaintitu dituelako da, ez du edonork hori egiterik. Badira aktore asko ez daudenean faltan botako ditugunak, eta Ramon izango da horietako bat. Sekulako teknika du. Sekuentzia batean, hamalau aldiz esanda ere gauzak errepikatzen, momentu berean hartuko du beti arnasa. Nire kezka zen ikusleak ez Ramon ikustea, pertsonaia baizik. Horregatik saiatu gara gehiegi ez nabarmentzeko interpretazio eta ahots bat bilatzen, Ramon Agirre desagerraz eta Martin ikusteko. Uste dut lortu dugula.

Kontrastean, esperientzia gabeko aktorea izan du parean. Khalil gorpuztu duen Laulad Ahmed Saleh gaztea.

Bai, baina beharrezkoa zen. Hasieratik argi nuen aktoreak eta aktore ez zirenak uztartuko genituela, sinesgarritasuna emateko eta lan egiteko modu bat ere badelako. Kasu honetan, aktore profesionalak kutsatu ditu ez direnen inperfekzio natural horrek, eta besteek asko ikasi dute profesionalen ondoan lan eginda. Ni oso gustura gelditu naiz Lauladen lanarekin. Gainera, kasu askotan ez ditugu hoberen dauden esaldiak hautatu, inperfekzioak dituzten zatiak baizik. Horrek ematen dio sinesgarritasuna. Hitz egiten dugunean ez dugu perfektu ahoskatzen, keinu arraroak egiten ditugu... Zinean perfekzionarako joera dugu eta badirudi arau idatzia dela, baina hortik ateratzen saiatu gara. Lauladek hori eskaini digu.



Grabaketa prozesuak irekia izan behar duela entzuna dizugu. Hala izan da orain ere?

Halako pelikula bat planteatzen duzunean, behar duzu benetan sinesten duzun gidoi bat, baina hala ere, prozesuak beti aldatu behar du zerbait. Bestela ez du zentzurik pelikula egiteak, hobe gidoia idatzita uztea. Guri adibidez, lokalizazio prozesuak edo aktoreekin egindako lanak asko eragin digu. Uste duzu dialogo bat borobila dela, eta ikusten duzunean aktoreen ahotan konturatzen zara ezetz, ez duela funtzionatzen, ez duzula ondo idatzi. Gero animaliak azaldu dira bat-batean, edo txaluparekin ibilita espero ez genituen irudi oso ederrak hartu ditugu...

Nekeza izan da dialogo horiek sinesgarri egiteko lana?

Hasieran hartu nuen erabakia izan zen horrekin burua gehiegi ez jatea, eta modu naturalean egitea dena; bai hautatutako euskarari dagokionez, baita euskara eta gaztelania nahasteari dagokionez ere. Gure errealitate linguistikoa berez da konplexua. Errealitate bat dugu Donostian, beste bat Ataunen... Eta aktoreen hizkuntza estiloak ere oso ezberdinak dira. Sinesgarri egiteko saiatu gara aktoreak beren euskararen matizak sartzeraz bultzatuz. Bitxia izan da adibidez...

[Oriora iritsi eta jaitsi gara trenetik. Elkarriketa eten dugu pixka batez. Hiru minutu eskasean dator bueltako tren. Bestelako gaiez hitz egiteko ia tarterik

gabe, bagoaz barrura berriz, Donostiako Easo plazarantz].

Ahaztu dut zertaz ari zinen ere... Hizkuntza hautuez?

Bai, hori da. Bitxia izan da Khalilekin gertatu zaiguna. Bera euskalduna da, bai aktorea bai pertsonaia, baina halako pertsona bati zuzentzen garenean ez dugu uste euskaraz jakingo duenik. Pelikulan hori islatzen da, baina lehen-goan, elkarriketa bat egitera joan ginen eta hori bera gertatu zen kazetariarekin. Horrelako gauzak azpimarratzeko ere balio izan du pelikulak.

Lehenengoz igaro zara fikziozko film luze baten lurretara. Oso bestelako lana da *Sipo Phantasma* edo *Plaganekin* alderatuta.

Jendeak normalki espero du zure lanetan aurretik egin duzun hori, baina nik, alderantziz, sentitzen dut horrekin hausteko beharra. Niretzat erronka zen aurretik egin ez dudana zerbait egitea, eta nahi nion nire buruari frogatu banuela pelikula konbentzional bat egiteko gaitasuna. Badugu obsesio bat autoretzarekin, begirada propioaren ideiarekin... Niri oso jarrera kontserbadorea iruditzen zait, atzerakoia. Ez naiz duela bost edo hamar urteko pertsona bera, eta normala da molde bereko lanak ez egitea. Denok edan dugu gauza desberdinetatik, denok kopiatzen dugu gustatzen zaiguna, eta aldaketa horiek ere nabaritu behar dira. Woody Allenena, adibidez, honezkero autoplagio konstante bat da. Niri hori ez zait interesatzen.

Aurrez beste lan asko egin dituzun arren, askok orain jo zaitu zinegiletzat. Are, Zinemaldian "Zuzendari berriak" sailean hartuko du parte *Oreinak*.


Jende askorentzat film luze bat egin arte ez zara inor, hori hala da. Orain bihurtu naiz zine zuzendari. Baina ez zait asko axola, egia esan. Egia da baduela halako prestigio sozial bat, baina dena da harri-kartoia. Ez da talentu berezirik behar zine zuzendari izateko; eta zenbat eta zine zuzendari gehiago ezagutu, orduan eta argiago dut hala dela.

Kritikoa zara sortzaileengandik oso urrun bizi diren ekoizleekin. Txintxua Films-ekin lan egiteak errazagoa egin du dena?

Bai, oso argi dut ni pribilegiatua naizela. Txintxuak aukera ematen dit bestela oso zailak liratekeen gauzak egiteko. Pelikula hau egiteko aukera badut, Marian Fernandez ekoizlearengatik da hori. Gidoia idaztera ere berak bultzatu ninduen. Apustua egitea, pelikula honek dituen ezaugarriak kontuan hartuta, ez zen batere erraza. Zalantza momentuak izan ditudanean ere, berak eman dit aurrera egiteko bultzada. Hori esanda, egia da zinearen beste alde hori aldrebesa ere badela: finantziazioa, zinemaldiak, salmenta internazionala, banaketa... Horrek eragin handia du zure pelikularen zabalkundean, eta askotan zinearekin zerikusirik ez duten aldagaiek eragiten dute.

Konbentzionala ez den zineak badu tokirik arau horien arabera joko-mahaian?

Ez da erraza. Badago belaunaldi berri bat: Aitor Gamentxo, Maddi Barber, Ma-



ria Elorza, Maider Fernandez, Juan Palacios... Guzti horiek ohitu dira *Sipo Phantasman* izan genuenaren antzeko lan egiteko modu batzuetara. Izango dute horiek zinea egiten jarraitzerik haien burua saldu gabe? Ba ziur asko ez. Politia litzateke haiek egiten ari diren bidea ere bultzatzea, baina ez dut ikusten apusturik horren alde, ez erakundeen aldetik, ez ETBren aldetik. Ez da Goyak eta argazkiak ematen dituen zine bat. Kontua ez da bata ona edo bestea txarra denik. Biak behar genituzke.

Zure burua saldu behar izan duzu zuk?

Neurri batean behintzat bai. Ez hainbeste egin dudan lanean, baina bai izan behar dituzun harremanetan, egon behar zaren tokietan, zer esan dezaitezun eta zer ez... Itxurakeriaren jorkoa ere hor dago. Denok dugu diskurtso iraultzaile bat, baina gero ikusten duzu zure burua elite batzuekin, eta hor egoitea ere gustatzen zaizu. Nire kasuan, ni hasi nintzenean oraindik ez zegoen hainbeste jende antzekoa egiten, eta horri esker ezagutu nau jende batek, egin dut bide bat...

Abangoardiaren onespina eta publiko orokorraren txaloea. Ez da erraza biak uztartzea.

Igual gaizki dago esatea, baina nik pelikulak batez ere niretzat egiten ditut. Publikoak ikusteko esperantza horrekin, baina niretzat. Kasu honetan ere, ez dugu froga-ikustaldi edo antzekorik egin. Pelikula bat ez da hauteskunde bat. Ez pelikula, ez musika, ez sorkuntza orokorrean. Hori esanda, uste dut zinelis-

» **“Zinean emozioari gehiegizko garrantzia ematen diogu. Denak izan behar du emozio bat sortzeko, dena baloratzen da negar edo barre egiteko gaitasunaren arabera”**

» **“Jende askorentzat film luze bat egin arte ez zara inor. Orain bihurtu naiz zine zuzendari. Baina ez zait asko axola, egia esan”**

» **“Zinelistook dugun joera hori, publiko orokorra gutxiestekoa, gainditu behar genuke”**

took dugun joera hori, publiko orokorra gutxiestekoa, gainditu behar genukeela. Eroso bizi gara *undergroundean*, mundu txiki batean elkar elikatzen. Hortik ateratzen ere jakin behar da. Publiko orokorrak interesa izatea nahi genuke gauza berri edo arriskutsuagoekiko, baina guk ere egin behar genuke esfortzu bat gure lan hori publiko horri gustarazi eta hurbilarazteko. Bi muturretan daudenak ez dira gustura egongo, baina nahita egin dut erdibideko zerbait egiteko saiakera. Pelikula honek izango du aukera zine aretoetan egoteko, eta joaten den jendeak ikusiko du proposamen desberdinak egin daitezkeela. Badaudela zine mota desberdinak, egiteko modu desberdinak...

Orain *Oreinak* bere bidea egingo du. Baina bide konbentzionalago hau jorratu ondoren, zertarako gogoz zaude zu?

Ari naiz idazten, baina ez dut plan zehatzik. Lan egonkorrik ere ez dut orain, ze noski, zinegileak ez gara zinea egitetik bizi. Beraz, oraintxe nago halako noraez sentsazio batekin. Bitxia da, batzuetan izutzen nau, eta beste batzuetan gustura sentiarazi.

[Heldu da trena berriro Donostiara. Kanpora atera gara, gainontzeko bidaiarien artean. Argazkiak ateratzen ari ginela aitortu digu Almandozek ondo ateratzeko sekretua: eguzkitako betaurrekoak. Geltokia atzean utzi eta Easo plazako terraza batean jarri gara hirurok, gargardo bana eskuan. Susmatzekoa zen: orduan hasi da elkarriketarik interesgarriena. Grabagailurik gabe]. ■

Mamadou Oury Diallo

“Nire bizitza beste askorena da”

Mamadou Ouryren bizitza oztopo lazgarrien kate baten eta horiek gainditzearen lekukotasuna da. Jaiotzetiko pobrezia Ginea Konakryn, Europara bidaia pateran, Almeriako plastikozko itsasoa, Arabako adingabeen zentroetako tratu txarrak eta kanporatze saiakera ilegalak, bizileku-baimena lortzeko ezin konta traba. Lekukotasun hau milioika pertsonaren historia konpartitua da. Atzo bezala, gaur ere bai.



Z. Oleaga

ARGAZKIAK: DOSPORDOS

Nolako haurtzaroa izan zenuen?

Ginea Konakryn jaio nintzen, Telimile herrialdeko herrixka batean. Inguruko herrietan bazen eskolarik, nirean ez. Aitzineko jendeak zioen, “ez dut nire umea eskolara bidaliko”. Zurieta baitzen eta zuriak gorroto zituzten, zuriak beltzak gorroto zituzten modu berean. Landan arroza eta zenbait zereal lantzen genituen. Etxe inguruan artoa, juka edo patata. Familia behartsua ginen: goizean jan, eta ez zenekien zer afalduko zenuen. Sei anaia ditut.

Behin, merkatuan baso fruituak saltzen zirela ikusi nuen. Basora joaten hasi nintzen, fruituak jaso eta merkatuan saltzeko. Koskortzean, 10 urterekin hasi eta 15ak bete arte, hiriburuko merkaturaino hurbiltzen nintzen. Gauza asko saldu eta erosten nituen. Kanean egiten nuen lo lagun batekin. Ondoren, Ginea Bissaun saltzaile ibiltari hasi nintzen. Gambiaraino bidaiatzen nuen arropa erosi eta Ginean saltzeko. Amaierarako diruren bat egin nuen, baina zorte txarra izan nuen, aurreztutako dirua lapurtu zidaten.

Orduan erabaki zenuen alde egitea?

Angolara nahi nuen, herri aberatsa. Prozesu horretan ari nintzela, lagun baten lagunak “ni Espainiara noa” bota zidan. “Europara! Iritziz aldatu dut, banoa ni ere”. Gutako askok ez genion ezer aipatzen familiari. Astebetean irteteko zela esan zidan, paterarako 600 euro zirela. Anaiari esan nion Gambiara nindoala merkantzia bila, eta Senegalera jo nuen. Nik uste nuen autobusa hartzearen parekoa zela, txartela hartu eta irten.

Odisea latzari ekin zenion orduan.

Horrela zen: zuk joan nahi duzu, irten nahi duen jende gehiago bilatzen duzu, jende horrek beste jende bat... patera bete arte, orduan irteten zara. Ordea, beti esaten dizute bihar irtengo zarela. Eta behin ordainduta diru hori ez dizute inoiz bueltatuko. Inoiz ez. Ni eta beste pertsona asko murriz inguraturako etxe batean giltzaperatu gintuzten. Esaten ziguten ezin genduela irten, poliziak atxilotuko gintuela patera hartzea debekatuta zegoelako. Baina iruzur egiten ziguten. Ez duzu inor ezagutzen, ezta hizkuntza ere. Gure dirua eman behar genien janaria eros ziezaguten, eta egoeraz baliatzen ziren diru askoren truk jaki gutxi emateko. Protestan hasi

ginenez, irla batera eraman gintuzten. Baina jende gehiago behar zuten oraindik. Irlan ahaztu ezinezko lau egun pasatu genituen [barre].

Zenbat lagun zindoazten pateran?

180, estu-estu. Aipatutako lau egun zoragarri horiek “Irla mortuan” igaro genituen, horrela zuen izena. Ura, itsasoa-rena; jana, zero. Itsasoratu aurretik nork bere ura erosi behar zuela esan ziguten, baina ontziratzean dena kendu ziguten. Haiek emango omen ziguten denetatik. Sinetsi dezakezu edo ez, baina ezin duzu deus egin. Ezetz esan eta bueltatzen saiatzekotan ez dizute utziko, ondoren beste batzuek ez baitute bidaiatu nahiko. Hilko zaituzte. Ur botila batzuk eta baso bat utzi zizkiguten. Ez zen inor hil, baina ia-ia. Laugarren eguneko gauerdian patera heldu eta oihukatzen digute, “bagoaz!”. Hor gelditzekotan, hor gelditzen zara.

Kanarietara bidean, azkenik.

Hamar egun. Ez nuen begirik bildu hamar egunetan. Hor bai izan genituen jana eta edatekoa, ontziratzean lapurtu zigutena. Haiek banatzen ziguten. Itsasoz bidaiatzen nuen estreinako aldia zen. Igerian banekien pixka bat, jaioterrian ibaia genduelako. Gure kasuan de-



*"Hiri barruko
autobusean
eseri, eta badakit
ez zaidala inor
ondoan jarriko.
Nik autobusean
erregea ematen
dut, lepo egonik ere,
beti baditut bi leku
niretzat".*

nok heldu ginen. Batzuek burua galdu zuten, ez hitz egin ez ezer. Hil inor ez, baina desagertu...

Salbamendu-taldeei laguntza eske aritu zineten eta ez zizueten eman, ezta?

Heldu aurreko egunean, atzera egitea pentsatzen hasi zen jendea. Baina kapitainak ezetz esan zuen. Ez zegoen bueltarako adina gasolinarik, saiatu beharra zegoen. Jendea erdi hilda zihoan, ni gaztea izanik zer edo zer hobeto nengoen. Gau hartan patera apurtu eta ura sartzen hasi zen. Itsasoa oso harro zegoen. Hor bai pentsatu nuela hiltzera gindoazela. Gauda zen, asko ez ziren ezertaz ohartu, erdi hilik erdi lokarturik. Azken egunean, arratsaldeko bostak aldera salbamendurako itsasontziak eta helikopteroak begiztatu genituen urrunean. Ez ziguten kasurik egin, gehiago sufritzen ari ziren beste batzuk egongo ziren eta haiengana jo zuten. Gauerdira arte ez ginen heldu.

Lurreratzean, poliziaren eskuetara. Kanarrietan 40 egun eta Madrilen beste bost. Handik Almeriara joan zinen zu bakarrik, plastikozko itsaso famatueta. Lortzen zenuen lanik?

Hasieran ez, gero noizbehinka. Tomatea, alberjina, piperra. Eguneke 30-32 euro ordaintzen zizkiguten [2008a zen]. Hartzen ez nindutenean, merkatuetara joan eta CDak saltzen nituen. Jendeak erosten zuen, baina polizia agertzean dena botata korrika irten beharra zenuen. Ni beldurrez egoten nintzen, CDekin atzemanen gero paperik ez zenuela inoiz lortuko esaten zen-eta. Urtebetez horrela.

Eta urtebete igarota, Euskal Herrira.

Gasteizerantz abiatu nintzen, herrikide baten bitartez. Heldu eta esaten dit "goazen Udaltzaingoarengana". Nik, nire artean, "hara, beti polizia!" [barre]. Aldundira eraman ninduten, adingabeen ardura hark du, Zabaltzen zentrora. Zentroan bi hilabetez egon ginen, hortik Estibalizera. Han beste bi hilabete, eta azkenik Bide Berrira sei hilabetez. Denak mutilak ginen. Afrika hegoaldekoak, aljeriarrak, marokoarrak, 30 inguru. Esnatu, gosalduta, ikastera joan eta buelta zentrora.

Gero okerrera egin zuen denak.

Ez dakit zer gertatu zen, nik uste ez zutela gutako gehiago etortzerik nahi, eta egoera gogortu zuten. 18 urte bete- tzean bizileku-baimena izateko paperak

» "Esan zidan paterarako 600 euro zirela. Nik uste nuen autobusa hartzearen parekoa zela, txartela hartu eta irten. Ordea, beti esaten dizute bihar irtengo zarela. Eta behin ordainduta diru hori ez dizute inoiz bueltatuko"

» "Gertatuko zena jakin izan banu, ez nintzatekeen etorriko. Baina norbaiti esaten badiozu 'ez joan, %70a ez da pasatzen', esango dizu: 'Beno, %30a bai, agian horietako bat naiz'"

egiteari utzi zioten. Eta zentroan arazo txikiengatik zigor handiak jartzen hasi ziren. Adibidez, esnea gehiago berotzea eskatzeagatik. Behin hezitzaile batek jo egin nahi izan ninduen, baina ez nion utzi. Horrelakoak izaten ziren, ez askotan, baina izaten ziren. Bazen karatea egiten zuela esaten zigun hezitzaile bat, horrek bai gustuko zuen jotzea.

Aurrerago, koordinatzaileak bulegora deitu gintuen gutako hiru. Paper batzuk aurkeztu zizkigun, esaten zutenak ez ginelako adingabeak. Aldundiak egin zituela esan zigun, sinatu beharra genuela. Guk ezetz, gure legeko pasaportea bagenuela, poliziak gure dokumentazioa zuela. Hark erantzun poliziak gure hatz-markak aztertutako zituela, adingabeak ez ginelako probatu zituela. Dena gezurra zen. Sinatzea nahi zuen, paperak Aldundira eraman eta gu izorratzeko. Guk ez genekien irakurtzen. Ez genuen sinatu, eta ondoren gure kontra egin zuten gogor. Gu ere errebelatzen hasi ginen, guztiak. Gutako hiru "matxinadaren" arduradun izendatu gintuzten, eta oso zigor gogorra ezarri nahi izan ziguten: gela banatan giltzapetuta, erabat bakartuta hiru astez. Orduan, zentrotik ihes egin genuen denek batera.

Dimentsio publiko handia hartu zuen gaiak. Gasteizko norbanakoek eta mugimendu herritarrek osatutako sareak eman zizuen babes.

Bai, ordurako gure berri bazuten. Batzuk Zaramagako elizara, hiru meskitara, beste asko lagunen edo pertsona solidarioen etxeetara joan ginen. Barzelonan edo Madrilen kontaktuak zizutuzten zenbaitek alde egin zuten. Hori da zentroak eta Aldundiak nahi zutena. Lau egunen ostean zentrora bueltatu ginen. Aldundia, paperei dagokienez, bere betebeharrekin konplitzen hastea lortu genuen.

Zentrotik kanpo, fase berri bat hasten da. Urtebeterako bizileku-baimena zenuen, lan egiteko baimenik gabe. Baimena berritzeko, aldiz, lan-kontratu bat aurkeztu beharra zenuen.

Zaila da azaltzen, baina ohikoa da hemen. Ez duzu lan-baimenik, urtebeterako kontratatzeko prest dagoen norbaitek soilik kontratatuta zaitzake. Mirariz aurkitzen baduzu, esango dizu: "Etorriko zara bihar lanera?". Ezin duzu. Izapide piloa egin behar baituzu, gutxienez hiru hilabetez luzatuko direnak. Hor-taz... agur lanari.

Zoro baten gisan aritu nintzen lan bila. Kontratu baten truke dirutza eskatzen dizun jende piloa dago. Are larriagoa: gerta daiteke ordaindu ondoren kontratua ez egitea; mafioso asko dago. Horrelako kasu asko ezagutu ditut.

Zenbat lanetan aritu zara ordutik?

Gasteizen soldatzaile aritu naiz, garbiketaren ere toki ugarietan. Gaztelania, soldadura, pintura, elektrizitatea, telekomunikazioak eta garbiketa ikasi dit. Alemaniara eta Andaluziara ere irten naiz lan bila.

Nola zaude orain?

Bost urterako bizileku-baimena dut; hurrengo urtean amaitzen zait. Berritzeko arazorik ez izatea espero dut, teoriarik, behin bost urteko lortuta, eroldarekin nahikoa da. Teorian, legeak aldatu egiten baitira... Bestela, ondo antzean nago, Hala Bedi tabernan lanean, baina ordu gutxi. Gehiagoren bila nabil, beti bila.

Ohiz kanpoko bizitza izan da zurea?

Nire historia gutako askorena da. Jende pobree askoren burutazioa da: "Ni banoa, zer edo zer lortu arte ez naiz buelta-



Mamadou Oury jaio zen etxea.

“MODU ASKOTAN SUFRITU DUT, INOIZ EZ AMA HIL ZITZ AidANEAN BESTE”

Familia laguntzeko diru bila irten zinen. Hamar urte joan dira...

Ni bezala bidaiatzen dugunok, pentsatzen dugu: “Pasatzea lortuz gero, nahi duzunean lan egin ahal izango duzu, nahi beste, nahi bezala irabaziz”. Hona heldu, eta a ze alde. Nik ikusten dut zer dagoen, baina nik lehen pentsatzen nuen berbera pentsatzen jarraitzen du familiak: “Heltzen bazara jada dirua duzu”. Zergatik gertatzen da hori? Ba, adibidez, mutil batek lana lortu eta hilean 100 edo 300 euro bidaltzen baditu, hori dirutza delako. Familia ondo egongo da, etxea egingo du... Jendeak %3 horri soilik begiratzen dio. Ez itsasoan hil direnei, ez etorri ostean bueltatu ezin direnei, gehiengoari. Batzuek paperik ere ez dute lortzen, beste batzuek bai baina lanik ez, hemen zahartzen dira. Esku-hutsik ezin zarelako bueltatu. Begira niri, hamar urte daramatzat.

Anaiak ezkondu egin dira, gauzak gertatu dira. Badakizu zer esaten didaten? Inutila naizela. “Denbora asko daramazu han, ez dirurik ez ezkondu ez ezer”. Ahaleginik egin ez dudala uste dute, horregatik ez dudala deus lortu. Edo zikoitza naizela diruarekin, izan badudala baina ez dudala banatzen. Dirurik ez badut, ez dut deitzen.

Urteotan gertaera lazgarrikeri ere izan duzu familian.

Toki eta modu askotan sufritu dut, baina inoiz ez ama hil zitzaidanean beste. Egutero oroitzen naiz harekin. Han bazaude, familiarekin, eramangarriagoa izan daiteke, baina kanpoan egonik... Nire anaietako batek etorri nahi izan zuen, ni aurka nengoen. Malitik saiatu zen Aljerian sartzen, eta tuareg batzuek bahitu zuten. 3.000 euro eskatzen zituzten ez hiltzearen truke.

Beldurra pasa zuen, torturatu egin zuten. Hemengo eta hango jende askoren laguntzari esker, bizirik eta libre da egun.

Harremanak ez dira errazak, baina elkartasun sareak daude.

Egoera oso zailak bizitzen ditugu. Nik, herrikideen artean, benetako lagunak, behar duzunerako dauden horietakoak, gutxi ditut. Hori bai, ezagutu edo ez fula hiztun heldu-berri bat ez dute kale gorrian utziko, inguruan beste fularik baldin bada. Aldi baterako aterpea ziurtatua du, gero bere bidea egin beharko du.

Afrikan, gure herrixkan, eskola bat eraikitzen ari gara guztion artean, oraindik ez dugu eskolarik eta. Kanpoan gaudenok eta ahal dugunok materialerako dirua jartzten dugu, eta herrian jarraitzen dutenek eraikuntzan hartzen dute parte.

tuko”. Gertatuko zena jakin izan banu, ez nintzatekeen etorriko. Baina norbaiti esaten badiozu “ez joan, %70a ez da pasatzen”, esango dizu: “Beno, %30a bai, agian horietako bat naiz”. Arriskatu beharra dago, ezta? Eta Europarantz irtetzen dira. Askok buelta hartzen dute, ez pentsa, asko hiltzen dira. Batzuek bost

urte daramatzate Saharan, igaro ezinik. Kontatu didatenez, Sahara patera baino latzagoa da, asko gosez hiltzen dira.

Besterik esan nahi?

Gu pertsona normalak gara. Bizimodua ateratzeko asmoz etortzen gara, eta espero ez genuena aurkitzen dugu. Hala

eta guztiz ere, eutsi egiten diogu, borroka egiten dugu. Hemen, arrazakeria ez da askotan hitzez adierazten, baina bai bestela, igarri egiten da. Hiri barruko autobusean eseri, eta badakit ez zaidala inor ondoan jarriko. Nik autobusean erregea ematen dut, lepo egonik ere, beti baditut bi leku niretzat [barre]. ■

Hitanoa eta generoa

Berreskura ote daiteke hika feminismotik?

Irailak 11-12. EHUKo Uda Ikastaroak Donostiako Miramar Jauregian. Ikastaroaren izenburua: *Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?* Hika galera nabarmenean da. Noka berriz, are azkarrago ari da desagertzen. Zergatik dira noka hiztunak urriago toka hiztunak baino? Nokaz berjabetzeak balio al dezake emakumeen ahaldunderako? Gizonak eta emakumeak bereizten dituen hitanoa indartzea egokia da binarismo zorrotza leundu behararen ahotsak entzuten diren garai honetan?



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: HERNANIKO KRONIKA

Beñat Muguruzak zuzendu zuen ikastaroa eta Garbiñe Bereziartua laguntzaile izan zuen. Ausardiak jokatu zuten egun eta erdiko ikastaroa gai horren gainean antolatuta, kontuan hartzen badugu ikastaroan parte hartu zuten hizlariak beraiek aitortu zutela euskara eta generoaz literatura sendorik ez dugula Euskal Herrian. Euskara eta generoaz teorizazio gutxi badago, hitanoaz eta generoaz are gutxiago. Ikastaroan gaiaz ikasteko eta gogoetatzeko egarria antzeman zen. Ziurrenik antolatzaileek espero zuten moduan, haiek egindako galderak erantzun beharrean galdera gehiago sortu ziren. Eztabaida mahai gainean dago.

Zergatik toka noka baino erabiliago?

Argi geratu zen genero rolek eragina izan dutela tokaren biziraupenean eta nokaren galeran. Besteak beste Antzuolan, Arratia bailaran eta Azpeitian egindako ikerketa lanen emaitzek arrazoi oso antzekoak biltzen dituzte. Nokak

halako etiketak izan ditu (gaur egun ia erabat eroriak): zakarra, zatarra, base-rikkoa, mari mutilena, bortitza, gizon plantak egitekoa, harrotutakoan erabiltzekoa, baita bekata ere. Tokak ere motxilan eraman ditu horietako etiketa batzuk, baina ez da gauza bera bide zuzenetik emakumea ateratzea edo gizona. Gizonak beti askeago. Zein onura ekar diezaiokeen emakumeari noka erabiltzeak halako ospea bazuen hizkerak? Moralaren gordetzaile izendatuak, alegia emakumeak, ihes egingo zion noka erabiltzeari. Estatus gutxikotzat ere bazuten hika, eta ohiko jarrera izan da hizkuntza gutxituetako emakumeek botere gabeziari aurre egiteko bigarren mailako hizkuntza alboratu eta hizkuntza menderatzaileari heltzea. Euskara alboratu eta gaztelaniari eutsi, edo noka baztertu eta zuka erabili. Bestalde, tokak eremu publikoa izan du eskura, gizona plazan ibili baita toka hitzetik hortzera. Aldiz, emakumeak eremu pribatura mugatuak izan dira, eta noka ere bai ondorioz.

Nokaz berjabetu nahian

Ikastaroan aurkeztutako hainbat ikerketa lanetan ageri da nola tokak gizon gazteei nortasuna osatzeko balio dien. Elkarrizketatutako mutil gazteek hala aitortu dute: elkarren arteko kidetasuna, konplizitatea, haurretik nerabezarorako pausoan gizontasunaren giltza... Azpeitian eta Antzuolan adibidez, tokak badu prestigioa eta balioa mutil gazteen artean.

Nokak ez du halako funtziorik betetzen, nahiz eta gaur egun ez duen duela gutxi aipatu dugun ospe txarrik. Nokaren berjabetzeaz hitz egin da ikastaroan eta hauxe galdera: hikaren berreskurapena egin al daiteke feminismotik? Eta galdera beharrean eskakizuna: mugimendu feministak esku hartu beharko luke prozesu honetan. Beñat Muguruzak bere ikerketa lanean hainbat bertsolari elkarrizketatu zituen, eta hitanoaz eta generoaz aritu ziren, besteak beste. Miren Artetxe bertsolariak noka hiztunaz duen iruditeriak iradoki de-



Miren Artetxek dio noka hiztunen iruditerian bi motatako emakumeak dituela: atso zaharrak eta gaztetxeko neska euskaldun bollerak. Belaunaldi berriek helduko ote diote noka berreskuratzeari? Argazkian Hernaniko Kontrakantxa Gaztetxearen inguruan ibiltzen den gazte kuadrilla.

zake berjabetze prozesua, oso xumea eta urria bada ere, lantzen hasiak direla hainbat feminista. Artetxek noka hiztun mota bi ditu buruan: atso zaharrak eta gaztetxeko neska euskaldun bollerak.

Elixabet Pagolak zuka egin du 18 urteak arte, nahiz eta gurasoek hika egin berari. Bost urte geroago hainbatekin hika egiten hasi da, bai noka eta bai toka. Hernanin, bost eguneko esperientzia xumea antolatu zuten berak eta bere lagun batek. Noka ikastaroari heldu zioten, emakumeentzat ahalduentze ariketa

gisa aurkeztuta. Pagolak emakumeek noka ikasteko eta erabiltzeko grina du, baina beharrezkoa iruditzen zaio gizonen emakumeei noka egitea bultzatzea ere. Izan ere, gero eta mutil gutxiagok egiten diete emakumeei noka, arrazoiak arrazoi. Alabaina, ondorioa da tokak bereak diren eta ez diren erabilera guneak hartu eta orokortzen ari dela.

Queer garaian hitanoa?

Amelia Barquínek egin zituen zirikatzaile lanak. Feminista gazteak noka ber-

jabetzeko ahaleginetan eta bera aldiz queer filosofia aldean hartuta. Barquínen ustez, genero bereizketa zorrozten ari da azkenaldian, binarismoa muturrera darama gizarte honek. Hitanoak berriz, genero marka dauka. Nola jokatu? Barquínen iritziz, kontua ez da hizkera neutroaren bila hastea baizik eta bidea irekitzea, umeei nahi edo ahal dutena egiten uztea adibidez. Hikak arau sozialak ditu eta ziurrenik arau berriak finkatu beharko dira. Artikuluaren hasieran esan dugun moduan ikastaroan erantzun eta baieztapen sendoak baino galderak jarri dira mahai gainean. Barquínenak dira ondokoak: hitanoa egin daiteke ez bitarra ala ez dago ihesbiderik? Nola erabili hitanoa bere burua binario izan nahi ez duenarentzat? Gizonak prest daude beraiei noka egiteko? Ildo beretik, Elixabet Pagolak beste hainbat galdera egin ditu: neutroa aukeratuko dugu? Toka aukeratuko dugu denentzat? Edo noka? Bakoitzari galdetuko diogu nola nahi duen? Jaime Altunak ere galdera gehiago ditu: Judith Butlerrek [queer teorian filosofo aditua] dio binarismo zorrotza leundu behar dela, ez alde batean ez bestean direnen sufrimendua arindu ahal izateko. Arintze horretan balia dezakegu hitanoa? Tokaren erabilera murriztu behar dugu? Noka indartu behar dugu? Noka denontzako erabiltzeko aukeratu behar dugu?

Kafe-garaian aipatu da agian hurrengo urtean bigarren ikastaroa antolatzea komeni dela, hain gutxi landutako gaiari jarraipena emateko. Segituan iritzia aldatu eta epe handiagoa hartzekotan geratu dira. Gaiaz egindako lanak biltzeko, ikastaroan esandakoak digeritzeko eta gogoeta gehiago sortzeko tarte hartuko dute. ■



HAMAR URTE KRISIAN KASINO GLOBALAREN PITZADURAK HOR JARRAITZEN DU

2008ko irailaren 15ean Lehman Brothersek kiebra onartu zuenean paradigma eta uste asko ere hondoratu ziren berarekin. *Atzeraldi Handiaren* hasiera izan zen, nahiz eta finantza kapitalismoa aspaldi zebilen sistema irrazional baten mamua begizatzen etxe-orratz distiratsuetan islatuta. Agintariek, egoera bideratu beharrean okertu egin dute: jendea ari da krisia pagatzen eta bankuek jarraitzen dute erruleta arriskutsuaren jokoan.



Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

Ekonomia ziztuan zihoan. 2008ko udan Europako Banku Zentraleko nagusiak, Jean-Claude Trichet-ek interes-tasak igotzea erabaki zuen inflazioaren beldurrez. Aste batzuk geroago, ordea, ikara mundu osora zabaldtu zen, AEBetako Gobernuak Lehman Brothers inbertsio bankua erortzen utzi zuenean. 1929tik ikusi gabeko egoera eragin zuen kiebrak: finantzen galera munduko BPGaren herena izatera iritsi zen, banku sistema ez ondoratzeke 4,5 bilioi dolar mugitu zituzten estatuek herritarren poltsikotik, eta langabezia izugarri hazi zen.

Hamarkada bat igaro da bizitzaren alor guztiak astindu dituen krisitzararren hasiera “ofizialekin”. Horren harira, Europako eragile ezkertiar eta ekologisten koalizio batek, ekitaldi ugari antolatu ditu egunotan hainbat herrialdetan, modu autonomoan: Frankfurteko burtsa parean protesta, Milaneakoan ere bai; Frantzia astebeteko egitaraua – tartean Bizi! mugimenduak sustaturiko klimaren aldeko Alternatiba ibilaldia, urriaren 6an Baionan amaituko dena–;

Herbehereetan Finantza Alternatiboan Azoka...

Kanpaina handi horren parte da Attac mugimendu altermundialistak aurten aurkezturiko *Hamar urte krisian* gida-liburua –gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez argitara emana–. Isabelle Bourboulon kazetariak beste hainbat adituren laguntzaz erredaktatua, ondorio garbia dakar: bankuak inoiz baino solteago dabilta, hondamendi handiagoa gerta liteke, eta beharrezkoa da finantzen mundua herritarren kontrolpean jartzea.

Krisia lehertu zenean, begirada moztzarekin, 2007ko AEBetako *subprime* hipoteken burbuilaren leherketari eta hortik eratorritako aktibo toxikoei bota zieten errua orduko analistek. Baina, “krisi hau ez zen istripua izan”, diote liburuan. 70eko hamarkadan produktibitatearen hazkuntza agortu zenean, merkatuak erabat liberalizatu zituzten kredituaren bidez etekinak pilatzen segitzeko, eta Keynesek *kasinoa* deituriko finantza sistema globalizatu egin zen: “Sistema honek benetako ekonomiare-

kin hautsi zuen, espekulatzea eta etekinak maximizatzea helburu”. Merkatua autoerregulatu zitekeen mitoa jaio zen.

Baina paradigma horri arrakala gero eta nabarmenagoak sumatzen zitzaizkion pattalaldi bakoitzeko: Mexiko (1995), hego-ekialdeko Asia (1997), Errusia (1998), Argentina (2001)... Krisi sistemiko baten lehen “konbultsioak” ziren horiek. *Atzeraldi Handia*-k agerian utzi du neoliberalismoaren printzipio nagusia gezurra dela, merkatu librearen ez duela ongizatea hobetzen, alderantziz baizik.

Haiei krisia, gure krisi

Erreskate eskuzabalak jaso ondoren, bankuak estatuen bonoekin espekulatzaren hasi ziren. Pagotxa! Zor publikoa biderkatu egin zen, eta ondorioz, austeritate germaniarra eurogune osora zabaldtu: defizitaren muga, murrizketa sozialak, soldaten jaitziera, langile kaleratzeko masiboak, deslokalizazioak, prekarietatea...

2008ko urrian Nicolas Sarkozy, Angela Merkelek, Gordon Brownek eta





beste hainbat mandatarik Parisen egin-dako gailurrean, herritarrei hitz eman zieten munduko finantza sistema erre-formatuko zutela. Baina Basilea III eta antzeko itunek ez dute askorako balio izan –berezko erreserbak, gutxienez kapital sozialaren %8 izatea derrigor-tzen die bankuei, “segurtasun irudipen faltsua” eskainiz–, eta hondoak jotzeko “handiegiak” diren bankuak baizik ez dituzte sortu. Italiako Monte dei Paschi di Siena bankuaren erreskateak erakutsi du hori.

Finantza eragiketen gaineko zerga ere, James Tobin ekonomialariak proposatutako tasatik urrun, ez da martxan jarri, Emmanuel Macron bankarien lagunak blokatu egin zuelako Frantzia boterera iritsi zenean. Inbertsio funtsek, aldiz, imajinario paregabea erakutsi dute itzalean finantza eratorri askoz konplexuagoak sortzeko eta burtsaz kanpoko operazioak egiteko, interes tasekin, zorrarekin nahiz dibisekin: “Edozein momentutan erupzioan sar litekeen sumendian bizi gara”, idatzi du Bourboulonek liburuan.

Honen arabera, bi agertoki arras ezberdin gerta litezke: beltza batetik, utopikoa bestetik. Beltzean, krisiaren erre-bote hilgarriagoa letorke. Utopikoan, kasinoa itxi, trantsizio ekologiko eta soziala lehenetsi, zorrari mugak jarri eta bankuak zorrozki gainbegiratu-ko lirateke, besteak beste. Funtsean, estatuek eta herritarrek euren burujabetza berreskuratu-ko lukete merkatuen aurrean. Attacek agertoki hori “errealista” dela dio, gizakiek planetarekiko erlazio guztiz desberdin bat izan ezean, denok dakigulako “katastrofea saihestezina” izango dela.

Ortzi-mugan laino potoloak daude ordea: bonoen burbuila gero eta handiagoa da eta zorraren krisi erraldoi bat gerta liteke oraingo interes-tasa baxuak igotzen hastean. Bestetik, *Brexit*-ak City-aren eta Europako beste finantza-plazen arteko lehia handiagoa ekarriko duela dirudi, merkatuen desarautzea areagotuz. Kasino globalak hor jarraitzen du beraz, pitzaturik dagoen zentral nuklearraren antzera. Noiz etorriko ote da hurrengo tsunamia? ■

Lehman Brothersen hondoratzea sinbolizatzen duen irudi ezagunean –“The Guardian” egunkarirako Linda Nylind argazkilariak egina–, konpainiak Londresen zuen egoitzako goiburua daramate Christie’s etxeko bi enplegatuk, enkantean jarri ondoren. 2008tik bizi dugun krisiaren hasiera “ofiziala” izan zen. Hamarkada bat geroago eta efemeridea aitzaki hartuta, finantza etikoen eta ingurumenaren aldeko eragile ugari “Hamar urte krisian” kanpaina jarri dute martxan Europan. Salatu dute aberatsek krisia baliatu dutela etekinak pilatu eta jendearen bizitza are gehiago prekarizatzeko. Bien bitartean, agintariek ez dute ezer egin finantzen mundua erregulatzeko eta bankuek burbuilekin espekulatzeko jarraitzen dute joko arriskutsuan. Xantaia onartezina dela diote: “Jarraitu behar al dugu obeditzen, pagatzen, bermatzen, babesten eta onartzen gastu publikoaren murrizketa, beste finantza kataklismo bat gertatu ez dadin?”.

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA ZERRA ETA ERAIKUNTZA



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

Daniel Olzomendi, Euskal Elkargoko kontseilaria

“EZ ETORRI BIGARREN ETXE BAT EROSTERA, PARTEKATU BIZITZA GUREKIN EROSI GABE”

Izura-Azme, 1974; Oztibarre, Baxenabarre. Herri horretako auzapeza da. Euskal Elkargoko Turismo, Natura eta Ondarearen kontseilaria. Biologia eta geologia irakaslea Baionan: “Politikan aritzea ez da aise, ez bazara politikari profesionala bilakatzen bederen. Nik nahiago dut ene lanpostua atxiki, orduak tipituz, eta independente izan ene pentsatzeko eta egiteko moldetan”, erran digu. Hartara, 2020an bere karguen aldia bukatzen bazaio, irakaskuntzara itzuliko da denbora osoz, gustura eta lasai.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zein da turismoaren inguruan Euskal Elkargoak Iparralderako duen plana?

Turismo Legeak galdatzen zuen turismo bulego bakarra izatea Euskal Herri oso-rako, 152 herriren artean egituratzea. 158 gara, baina sei herriek –biziki turistikoak– eskumen hori bazuten lehendik: Hendaia, Bidart, Angelu, Miarritze eta Kanbok... Baionak ere bazuen, eta orain, Euskal Elkargoarekin partekatzen du eskumena. Beharrezko berregituratzea egin ondoren, urriaren 2an bigarren etapari ekinen diogu: lehen aldikoz, Ipar Euskal Herri osoko bulego bakarra izanen da, Baionakoa barne. Euskal Herriko bulego nagusia, aipatu bost herri horiekin batera arituko da turismo politika orokorra elkarrekin finkatzeko.

Turismoa gai minbera izan da hemen historikoki. Turismo neurtua eta orekatua eskatu dute bereziki abertzaleek.

Baiki. Horretan ari gara. Gure ustez, lehenbizikoz, turismoaz ontsa komunikatzen ikasi behar dugu: norengana zuzentzen garen arabera turismo mota hartuko dugu, baita erraten diogunaren arabera ere. Aritzeko moldea

aldatu behar dugu: ez dugu joan behar Pariserat urtarril eta agorrileko turisten xerka, horietatik aski baitira. Behar bada marra gorria gaingitu dugu, beraz, ez da jende gehiago ekarrarazi behar. Aldiz, hobe da urtean zehar Euskal Herriarekin harremanetan izanen den jendea ekarraraztea. Halaber, harremanak gehiago landu behar ditugu Hegoaldetik datozen turistei buruz: Iruñea, Donostia, Bilbo, Gasteizera joan eta “Zatozte Iparraldera!”, ontsa erran. Gehiago elkar ezagutu behar dugu, gure bizimoldeak trukatu elkar hobe ulertzeko.

Alabaina, tokiko turismoaren arriskuak ezagunak dira: euskal nortasunaren degradazioa, folklorizazioa...

Abertzaleak urtetan borrokatu gara turismoaren aurka, ez ordea, ez genuelakoz jendea Euskal Herrira etortzerik nahi, hain juxtu ere, ez genuelako folklorizatuak izan nahi. Herri Elkargoko turismoaren eskumena Miarritzeko auzapez Michel Veunac-ekin partekatzen dut, baita ideia hau partekatu ere: ez dugu Euskal Herria folklorizatu nahi, gure identitatea atxiki nahi dugu, bizi-

tzeko eta egiteko geure moldea gorde nahi dugu. Gu beste herrialdetara joaten garenean ez dugu turismo folklorizatua nahi, nahi ditugu harremanak ukan tokiko jendearekin, lurralde horren berezitasunak ulertu nahi ditugu. Ez dugu lurralde horren nortasuna aldatu nahi, ez dugu ere herrialdeen arteko harremanak horrela garatu nahi. Beste herrialdetara joatean xerkatzen dugun turismo mota nahi dugu eskaini hemen.

Natura ere kudeatzen duzu. Kostaldeko metropolia Kanboraino iristen da. Nola orekatu hiriaren eta kanpainaren arteko harremana?

Orekatu beharra agerikoa da. Jendea behar da, jendea behar du barnealdeak, natura eta lurra babestu behar dira, baina hori ez da bakarrik turismo politikari lotua. Adibidez, lotua da garraioari. Hau da, barnealdeko jendea hona dator, eta kostaldeko hemendik hara doa, bada, lurra zaindu behar dugu ezinbertzean: bideko garraioa eta trenaren aldeko politikak sustatu behar ditugu. Zentzu horretan, politika guztiak lotuak dira, baita etxebizitzako politika ere.



Etxebizitza gero eta gehiago dago Lapurdi barnealdean. Batzuk bigarren etxebizitzak dira.

Guk turismoa izatea nahi dugu, baina ez dugu nahi bigarren etxebizitzak egon daitezen. Horretarako ari gara lanean, baita mezu egokiak helarazten ere. Nik Paristik heldu diren lagunak ditut: "Hara, etxeak erosgai daude?", diote. Ene arrapostua: "Bai, baina ez etorri bigarren etxe bat erostera, partekatu bizitza gurekin baina bigarren etxea erosi gabe. Zeren eta hori eginez gero gure gazteek zailtasunak dituzte beren etxea ukaiteko". Pedagogikoki beraz hori landu daiteke. Turismoa heldu da eta gure egitekoa da Euskal Herriko ekimen sozial eta ekonomikoen berri ematea. Adibidez, euskoa moneta zer den esplikatzea. Turismo bulego batzuk norabide horretan ari dira gero eta gehiago, Euskal Herriko problematika eta nortasuna azaltzen dituzte. Ez dugu berehala dena lortuko, bistan da.

Turismorik gabeko ekonomia garatzea gaur egun, pentsaezina da.

Bistan da. Ene saila ere ondarearen zain-

» **"Lanean hasi gara eta ohartu gara Euskal Elkargoak bere mugak dituela"**

tzaz arduratzen da, turismoarekin partekatua ezinbertzean, natura saila bezala. Mendiraino joaten diren programak lantzen ditugu, antolamendua hobetu dugu, ardatz horretan ari gara. Adibidez, hainbat ibilbide zabaldu dira bizikletaz egiteko, baina kasu eman behar dugu noraino eta nola zabaltzen diren. Euskal Herri osoan egitea proposatu ditugu, baina laborantza errespetatuz. Barnealdean perla batzuk daude: trikuharriak, harpeak... Interpretazio zentroak badaude gure historia azaltzeko -Isturitze edo Sarakoak, bertzeak bertze- baina haien arteko harremanak hobetu behar dira. Ondareak bisitatu daitezke, baina haurren beharrek lotu behar da: jostaketa, aisialdia, gastronomia, eta betiere folklorizatu gabe. Aldi berean, laborantzak badu zer erran zer erakutsi eta zer pro-

posatu. Horiek guztiak lotu behar zaizkio turismo sailari, baina denak irabaztun izateko, eta bereziki barnealdean.

Euskal Elkargoak bi urte beteko ditu heldu den urtarrilean. Abertzaleen errebindikazioa Lurralde Elkargoa izan zen. Nola ikusten dituzu abertzaleak erakunde honen bilakaeraren aurrean.

Guk ez dugu ahazten zer nahi dugun, hau da, gero eta autonomoagoak izatea. Abertzaleen asmoa hori da. Orain Euskal Elkargoa dugu, epe batendako tresna. Hamar euskal elkargo ginen, eta bat gara, eskumen batzuk erdietsi ditugu, eskumen bereziak, hala nola laborantzan, hizkuntzan... Horretaz gain, elkargoa batu izanak plusbalio bat ekarri du, hots, politika egiteko molde bateratu bat lantzen ari gara, zerbitzuak profesionalizatzen ari gara emeki. Konparazionerako, gure herrian, Izuran -nik hobeki ezagutzen dudana bertze proiektuen artean- Evah elbarri elkartearen proiektua garatzen ari gara Iruñea eta Jaka herriarekin batera. Guk lehen ezin genuen hori garatu, ez teknikoki ez diruz. Ipar Euskal Herriko proiektua bilakatu da Euskal Elkargoaren bitartez. Eskumen horiek ez genituen, orain elkargoak batzean biderkatu dira. Lehen proiektu gehienak Baionan zeuden, eta orain lurralde osora zabaldu dira.

Politika profesionalizatzea diozu, militante abertzale gazteek ulertzen dute hori?

Bai, nik uste. Denok behar dugu begirada pausatu eta altxatu. Gu ere militanteak gara, baina orain proiektuak gauzatu behar ditugu eta hori egiten ikasi behar dugu. Eskumenak teknikoki landu behar ditugu, herrietan egonez, orain arte ari izan garen gisan. Proiektuak denok batera altxa ditzakegu, horiek ezin dira gauzatu lehenagoko heinean edota moldean arituz. Egiten den guztiak ez du dirdiratzeko, bistan da. Teknikariak, politikariak, gizarte eragileak eta militanteak behar dira dosierak elkarrekin lantzeko. Denak beharrezkoak dira.

Alabaina, Euskal Elkargoak gabeziak ditu.

Bai. Herri Elkargoek bat egin dugu, lanean hasi eta ohartu gara jada Euskal Elkargoak bere mugak dituela. Adibidez, Frantziako Estatuak diru mailan, fiskaltasun mailan, gure funtzionamendua neurtzea eta tipitzea nahi du, legeak hori ezartzen duelako. 2017ko

“BARNEALDEA ESKUINDARRA DA, EZ AHANTZI”

Izurako auzapeza hamar urtez: “Militante gisa hasi nintzen politikan, Lehia elkartearen. 2x2 autobidearen proiektuaren kontra. Izura herria autobidearen proiektuak ukitu zen, herriko kontseilaria nintzen oposizioan. Nahiz eta Izurak 200 biztanle baino ez izan, ez nekien hainbeste gauza erabaki ahal zela. Auzapez lanean ohartu naiz gai politiko anitz trenka daitezkeela herri tipietan. Adibidez, trantsizio energetikoa ez du soilik Estatuak erabakitzen, denok erabakitzen dugu gure mailan, badugu zer eginik. I-Ener elkartearekin panel fotovoltaikoak ezarri ditugu, elizako zein herriko haurtzaindegiko teilatuetan. Paueko formakuntza

zentro bat ekarrarazi dugu, laborantzari lotua. Arrapitz sarea eta Idoki kalitatezko laborantza bultzatzen dituzten egiturak dinamizatzeko egin da. Orain, 25 langile ari dira lanean, eta 30 ikasle ari dira egunero. 200 bizilaguneko herri batera dinamika izugarria ekarri du. Herriko bizilagun kopurua atxiki dugu, amiñi bat goititu ere. Presoen gaia ere mahaia gainean dago Herriko Etxean. Gauza tipiak dira nahi baduzu, baina hori politika egitea da. Ez nuen halakorik egin zitekeenik uste”.

Herri Elkargoaren segida da egungo Euskal Elkargoa: “Oztibarreko Herri Elkargoan lekua hartu du Izurak eta ikasi dugu.

Orain, Euskal Elkargoan ari gara. 2011ko kantonamenduetako bozetan EH Bai-ren izenean aurkeztu nuen ene burua Oztibarren. Hautagai abertzale bat bigarren itzulian lehiatu lehen aldikoz. Eztabaida sustatu zen. Ezker edo eskuineko edozein alderdiko kideekin lanean entseatzeko naiz abertzale gisa. Arazoak badira, beti daude ustekabeak, baina oposiziokoek ez zuten uste garen bezalakoak garenik. Ikuspuntu ezberdinak ditugu, bistan da, ezin da bestela izan, baina abertzale gisa ari gara eta jendeak ez du dudarik gurekin politikan aritzeko. Gogorarazi behar da barnealde eskuindarra dela, ez dezagun hori ahantzi”.

dirua ezin dugu emendatu %2 baino gehiago, nahiz eta 2018ko esku-menak berriak izan. Estatuak hori espres egiten du, ez digu ahalak handitzen uzten. Hori kritikatu dut. Estatuko lurralde idazkaria Garazira heldu izan da eta erran diot: “Euskaldunok emantzipatu nahi dugu”. Beraz, Euskal Elkargoa mugatua izanen da horrela segitzen badugu. Baina negoziaketan ari gara, beste lurraldeetan ere horretan ari dira [Korsikan, bereziki] eta horrek ondorio baikorrak ekartzea espero dut.

Herriko etxeetarako hautatu zinegotziak zarete orain Elkargoko kontseilariak. Batzuek kontseilariak sufragio unibertsalaz hautatzeko beharra ikusten dute. Beste batzuek, bereziki herri txikiak auzapezek, horrela hautatuz gero alderdietako ordezkariak nagusi izateko arriskua ikusten dute. Zein da zure iritzia?

Zaila da horri erantzutea. Ez dut erantzuna ene buruan trenkatua. Sufragioz egiten bada, demokratikoagoa izanen da, baina hauxe ere egia da: hiriguneei alimaleko boterea ukanen dute. Beraz, sistema egoki bat behar dugu ezarri eta horretarako pakto bat sinatu. Sufragio unibertsalaren bidezko aukera baino ez bada egiten, hiriguneei botere handia ukanen dute. Herri tipiek duda-mudak dituzte, erdiko sistema bat behar dugu, sistema berezi bat. Pakto horrek ziurtatu behar du hautagaiak lurralde osoan izatea. Datozen bi urteak gako



izanen dira hori trenkatzeko. Jean-Rene Etchegaray presidentek lortu du ikusmoldeak hurbiltzea, baina egia erran, joera anitz daude. Euskal Elkargoaren balioa izanen da auzitan.

Bestalde, garraioa ordaintzeko zerga lurralde osoan jasoko da. Enpresak dira zerga horren erantzule nagusiak.

Pragmatikoa da ene erantzuna. Estatuak inposatzen du garraioa finantzatzeko modua izan dadin enpresen zergen birtate. Ez da normala. Nola egin, ordea? Garraioa –eta mugikortasuna– bulzatze-ko dirua hartu dezakegu diru funts publikotik, nahiz eta legeak dirua bakarrik enpresei galdatzen ahal diezula erran. Orduan, bakoitzak hartu behar du bere ardura. Ez da erraz horri aurre egitea. Alta, Hego Lapurdi Herri Elkargoko garraio politika ez da enpresari zergekin finantzatu, aurrekontu orokorretan hartzen zuten. Beraz, enpresen zerga ez aplikatzea ere posible da. Alabaina,

guk abertzaleok ez dugu nahi herri xeheak zerga hori bere gain hartzea.

Barnealde eta hiriguneko politika orekatua ezartzea zaila da.

Noski. Orain arte enpresa batek plantatu nahi izan duenean, kostaldea hautatu du begi-bistako arrazoiengatik. Guk orain nahi dugu Hazparne, Lartabale edo Irisarrin jartzea, eta kostu gutxiagoz egin ere. Orain arte bakoitzak bere alde-rik egin du. Hemendik aurrera, ikuspegi orokorra izanez, enpresa bat joan daiteke Zuberora, eta abantailak ukanen ditu. Lanpostu gehiago izanen dira eta tokiko jendea han biziko da. Posible izan ez dena, orain posible egin dezakegu. Erran bezala, politika guztiak gurutzatzen dira, garraioa, enpresa, etxebizitza, turismoa... Sail guztiek ikuspegi orokorretik landu behar dute beren politika.

Azkenik, nola ikusten duzu euskara Euskal Elkargoaren baitan?

Euskal Elkargoak deliberatu du frantsesaren ondoan, gure egituraren euskarak eta gaskoiak ofizialtasuna izatea. Kontseilu-etak aktak hiru hizkuntzan idazten dira, emeki-emeki ari gara, bistan da, baliabideak garatu behar baitira. Euskarak ofizialtasuna baldin badu hautetsien ahotik, euskara onartzen badute, mintzatzeko gogoia emanen dute eta gehiago zabalduko da. Nik ekitaldi publikoetan euskaraz egiten dut, elkar onartuz eta partekatuz hasi gara. ■

BULARRETAKORIK EZ ZUTEN ERRE



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Atlantic City (AEB), 1968ko irailaren 7a. 1969ko Miss America aukeratzeko ekitaldia egin zuten eta, kanpoan, New York Radical Women erakundeak deituta, 400 bat emakume bildu ziren lehiaketaren aurka protesta egiteko. Bihamunean, *New York Post* egunkarian, Lindsay Van Gelder kazetariak idatzitako artikuluak titular hauxe zeukan: *Bra Burners and Miss America* (bularretako erretzaileak eta Miss America, alegia). Eta handik aurrera, azken mende erdian, bularretakoak erretzea borroka feministaren ikur izan da, protestaldi hartan inork bularretakorik erre ez zuen arren.

New Yorketik Atlantic Cityra autoetan eta alokatutako autobusetan hurbildu ziren emakume feministetatik lauk sarrierak zeuzkaten eta antzokira sartzeko aukera izan zuten. Han, *Women's Liberation!* zioen pankarta zabaltzen zuten eta emakumeen askapenaren aldeko dozena erdi oihu botatzeko aukera izan zuten, poliziak indarrez kanporatu zituen arte.

Kanpoan, hainbat ekitaldi sinboliko egin zituzten. Ardi bat miss koroatu zuten, halako lehiaketek emakumeak ganadua bailiran tratatzen zituztela salatzen. "Askatasunaren zaborrontzira" bota zituzten sukaldeko tresnak, "Playboy" eta *Cosmopolitan* aldizkariak, betile faltsuak, makillajea, takoidun oineta-



Duela 50 urte, 1968ko irailean, Miss America aukeratzeko lehiaketaren egoitzaren parean, feministek salatu zuten emakumeak ganadua bailiran tratatzen zituztela horrelako ekitaldiek. Protesta bularretakoak erretzeagatik egin zen ezagun, baina han ez zen bularretakorik erre. ALIX KATES SHULMAN/DUKE

koak, kortseak... Eta, bai, bularretakoren bat ere bai. Zaborrontziari su emateko asmoa ere bazuten, baina poliziak galarrazi zien.

Han banatu zituzten eskuorrietan garbi azaldu zuten haien aldarrikapenak ez zirela feminismora mugatzen. Arrazismoaren kontrako aldarriak jaso zituzten -1921ean sortu zenetik, Miss America lehiaketaren finaletan soilik emakume zuriak onartu zituzten-, baita militarismoaren edo kontsumismoaren kontrakoak ere. Baina *New York Post*-eko titular hark bularretakoei su eman eta ñabardura horiek guztiak itzali zituen.

Bonnie J. Dow idazle feministaren ustez, feminismoaren eta bularretakoak erretzearen arteko lotura antifeministek bultzatu zuten, emakumearen eskubideen aldeko mugimendua baliogabetzeko. "Feministek arinkeriaz jokatzaren zutela eta bularretakoak kendu eta erretzea gizonak erakartzeko trikimailua zela sinestarazi nahi izan ziguten".

Carol Hanisch protestaldiaren antolatzaileetako batek gerora esan zuenez, "komunikabideek bularretako erretzaile deitu ordez kortse erretzaile deitu izan baligute, AEBetako emakume guztiek gurekin bat egingo zuketena". ■



'AZKEN AFARIA', JUAN DE JUANES

Azken afarian laranja ez

Asko izan dira Jesukristo eta hamabi apostoluen Azken Afaria mihisean jaso duten margolariak eta, horien artean, mordo batek laranja margotu zituzten mahai gainean: Jacopo Bassano, Juan de Juanes, Leonardo da Vinci, Daniele Crespi...

Laranjek Ekialde Urrunean dute jatorria baina Europara ez ziren X. mendera arte iritsi. Garai hartan, musulma-

nek sartu zituzten Iberiar penintsulan, Afrika iparraldetik. Ekialde Hurbilera lehentxeago iritsi ziren, baina ez 900 urte lehenago. Hortaz, edo Azken Afariko sukaldariak bidaia luzea egin zuen Asia ekialdera zitrikoen bila, edo margolari handi horiek guztiek obra ederrak osatu arren, akats historikoa egin zuten jakiak aukeratzeko. ■

McIntosh sagardoa



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Egia esanda, gure etxeko sagastietatik kanpo, ez dut Euskal Herrian beste inon ezagutzen sagar aldaera hau. Istorio luzea du, irakurtzeko hobe duzu esertzea.

Gure amona, Joxepa Aizpurua Irazu zena, gero Aizpurua Sagardotegia izango zenean jaioa zen. Aurrez ere dolare-baserria izan zen, baina gerora, duela ehun urte inguru, orduko sagardotegirik aurreratuenetako bat izan zen, Zubietan, Usurbil aldamenekoan. Bere anaia Danielek eratu zuen sagardotegia, baina gerra zela-eta alde egin behar izan zuen. Bueltatu zenean berriro ekin zien sagastietako eta sagardotegiko lanei.

Sagarretan ere tarteka izaten da ezurtea, esaerak hala dio “ezurtea, ez sagar eta ez ezer”. Sagarrik ez den urtea azkenekoa da ia pitarra eta sagardoa soilik edaten diren lurraldean. Frantzia eta Asturiasen sagardogintzan gertatzen ari ziren aldaketak eta berrikuntzak eza-gunak zituen Danielek. Ez dakit ezurtea zelako edo proba edo saio bereziren bat egin nahi zuelako, lehengo mendeko 40ko hamarkadaren amaiera aldeko udazken batean, Asturiasen sagar jakin baten karga mordoxka bat erosi eta ekarri zuen. Egurrezko fruitu kaxetan txukun-txukun trennez etorri zen Txikiardiko geralekura. Handik galeran edo karroan dolarera. 6.000 litro inguruko upela bete zuen sagar haien muztioarekin. Zenbaiten iritziz, sekula edandako sagardorik onena eman omen zuen. Garai hartan ere, monobarietala edo sagar aldaera bakar batekin egindako sagardoa. Gaur egun, etorkizun handiko bidea igartzen zaio aldaera bakarrarekin egindako sagardoari. Are etorkizun oparoagoa izango du, sagardo hura bezala haritzezko (*Quercus robur*) upelean ondua izango denak; denbora izango da lekuko.

Handik hogeita hamarren bat urtera, Danielen ondorengo hiru joan ginen Asturiasera, sortu asmo genuen sagasti berrirako mentu bila. Garai batean hain emaitza sonatua izan zuen sagar aldaera hori ere ekarri genuen, noski. Sagasti horretan dago sagar aldaera hori, oraindik ere.

Sagar aldaera horrek eman dio izena gaur egungo mundu mailako negozio handienetako bati, “sagarra” izenez eza-gunak diren ordenadoreak, ingelesezko *apple* alegia. Eta sagar aldaera McIntosh da, *Malus domestica* “McIntosh”, motzean “Mac” esaten diogun hori. McIntosh sagardoa. ■



ANTTON OLARIAGA

“Marrazkiekin testu eta azalpenei osotasuna ematen saiatu naiz”



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: DANI BLANCO

ARGIAk atera berri du *Landareak Lantzen* 2019, hilabete bakoitzean eta astez aste, ilargia kontuan izanik baratzean egin beharreko lanak azaltzen dizkigun agenda-liburua. Bertako ilustrazioak Antton Olariagak eginak dira, beste behin. *Altza Porru* komikian eta iazko *Landareak Lantzen* agendan ere parte hartu zuen marrazkilari usurbildarrak. Aspaldian dira konplize bihurtuak Jakobak Errekondo eta biak baratzeako iraultza honetan...

Bizi Baratzeko hainbat proiektutan hartu duzu parte azken urteetan. Zer du baratzeak gai horren bueltan horren gustora marrazten aritzeko?

Zer daukan baratzeak? Bada, nire ez-jakintasuna! Ideiarik ez daukadala gai horri buruz. Orduan, halako “xerpa esperto” bat aurrean izateak zerbait ikasteko eta umore klabea elkarrekin lan egiteko aukera ematen dit, eta horrelako aukerak ezin dira baztertu. Azken urteetan pixkanaka konplizitate handia lortu dugu bion artean, eta ni oso gustora nabil, ederki pasatzen eta ikasten. Gainera, produktu ezberdinak izan dira denak ere: komikiak, ilustrazioak... Jakobak Errekondoren diskurtso eta azalpenetara egokitu behar hori gustokodut, hizkuntza grafiko bat testu horiekin ezkontzeko saiakera hori.



Bigarren aldiz atera da *Landareak Lantzen* aurten. Mantendu dira iazko zenbait marrazki ala guztia berritu duzu?

Benoa, egia esan *Landareak Lantzen* testua da nagusi, ematen den informazioa. Jakina, marrazkiek ere bere informazioa ematen dute eta horiek irakurtzen jakin egin behar da. Saiatu naiz marrazkien bidez ahalik eta garbien adierazten, baina ez notarioarena eginez, bakarrik testuetakoa kopia-tuz, baizik marrazkiekin guztiari osotasuna emanez. Iazko agendatik keinu batzuk errepikatu bai, baina ukitu batekin zabalduz edo zenbait gauza pixka bat aldatuz. Proportzio oso handi batean erabat berriak dira marrazkiak. Aurten go agenda honetan gaia lan-tresnak izan dira gainera...

Eta zer moduz moldatu zara lanabes horiek marrazterakoan? Ezagutzen zenituen lehenagotik edo Errekondoren laguntza behar izan duzu?

Tresnei buruz nik justu-justu nekizkie-nak aitzurra, igitaia, eta besteren bat ziren. Besteak bistaz ezagutu bai, baina zehazki zein lanetarako, noiz eta nola erabiltzen diren ez nekien. Kalekumea naiz ni! Beraz, Errekondok bai hitzez eta bai idatziz testuetan pasatu dizkit argibideak, eta tresna horien inguruan ikasteko bestelako elementu grafikoak pasatzeko ere eskatu nion. Gero, askotan esaten zidan: “Aizak, hau horrela hobeto” edo “beste hau aldatuta borobil geldituko litzateke”... Bera izan da nire maisua. Eta ni bere oinetara esklabu (kar kar). ■

azoka

NOLA SALDU GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" botoia. Bost minutuan jar daiteke edozer salgai Interneten, denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko komunitatearen arteko harremanak indartzeko, besteei zerbait emateko aukera dugu. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eus/azoka • [@argiaAzoka](https://twitter.com/argiaAzoka)

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

87
salgai

"Perretxiko zaindariak" mahai jolasa

Atsegin duzu perretxiko bila joatea? Udazken honetan, jolas honen bidez perretxiko biltzaile arduratsu eta bikaina bihurtuko zara. Taula berean hiru jolas izango dituzu. Basora joan eta zure ibilbidea eta helburua aukeratuta, perretxikoak bildu beharko dituzu. Horretarako galderei erantzun beharko diezu eta hiru erantzun izango dituzu aukeran.

Ezaugarriak:

- 8 urtetik gorakoentzat.
- 2-4 lagun.
- 20-40 minutuko iraupena.



15 euro

Irailaren 27an, 10:00etan...

ARGIA Jendearentzat musutruk jarriko ditugu argia.eus/azoka webgunean. Ez da zozketa, azkarren ibiltzen denak eramango ditu!

34
gai
musutruk



Bizi Baratzea lamina 23 eta 24

Mattinek eta Ainar Azpiazuk eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 zm.



Muskulazio aparatua

ASTEKARIKO SAIL BERRIA

Kazetaritza kritikoak kritika kazetaritzari ere



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Bigarren zatiak ez omen dira sekula onak izaten; edo ia sekula ez, behintzat. Ez da gure asmoa bigarren parterik egitea, eta beraz, espazioaren lekukoa bakarrik pasako dio bata besteari: astekariaren bosgarren orrian doan zutabea. Gorka Bereziartuak amaituko duen *Fauna publikoa* atalaz eta Santi Leonék txoko berean abiatuko duenaz ari naiz – izena ezagutzeko estreinaldira arte zain egon beharko duzu–.

Bai, fauna publikoak eskainiko dizkigu oraindik makina bat esaldi, eta ziur Boli Gorriak topatuko duela beste txokoren bat luma eta Sarea astintzeko. Baina Bereziartuaren agurraren aurretik, horretarako ere denbora hartuko baitugu geroago, ongi-etorria eman nahi diogu Santi Leoné kolaboratzaile berriari. Urriaren lehenetan topatu ahal izango duzu, irakurle, aktualitatearen mamiz betetako kritika, ironiaz gozatuta.

Euskalerrria Irratian entzuna izango duzu, agian, Leonek astelehenero egiten duen *Dekalogo*a. Hortik tiraka ekingo dio ARGIAko atalari ere. Irratian astero hamar albiste edo gai hartu eta ikuspegi ugaritatik erreparatzen dio aktualitateari. Kasu honetan albiste, gaia, eztabaida, bat izango da, eta horretan zentratuko du asteko analisia. Ironiatik. Dibertsiotik. Baina mamiz josita. Hedabide guztiak izango ditu joko-zelai, eta kazetaritza irakurtzeko modu kritiko batez aztertuko du. Hizpide izango ditu titularrak nola idazten diren, zein hitz erabiltzen diren, batzuei eta besteei



Santi Leonék urrian ekingo dio astekariako bosgarren orrian zutabeari.

zer galdera eta nola formulatuta egiten zaizkien... Zer dago horren guztiaren atzean?

Kazetaritza-lana egiterako orduan beste hedabideei erreparatzeko zein betaurreko jarri jakiten lagunduko digu, baita irakurleari ere, erreparatzen dituen komunikabideak ikuspegi kritiko batetik begiratzeko. Horrenbeste informazio jasotzen dugun honetan ez al dago desinformazio handia? Ez al gara ikuspegi kritiko hori galtzen ari? Ez ote dira batzuk informazio saturazio hori aprobetxatzen ariko, hizkuntza ponpoxoetan zenbait ideia eta ildo indartzeko?

Kazetaritza independente eta kritikoa izateko kazetaritzari ere kritika egingo dion txokoa jaiotzeaz da. Ongi etorri! ■

Hondarribian erasotako kazetariet babesa

ARGIA egiten dugun langile guztiok babesa adierazi nahi diegu irailaren 8an Hondarribiko Alardearen berri ematen ari zirenean erasoak jasan zituzten kazetariet. Horrelako gertakariet informatzeko askatasuna urratzen dutela uste dugu eta onartezinak direla gizarte demokratiko batean.

Antxeta Irratiko kazetari bati informatzeko erabiltzen ari zen telefono mugikorra kendu zioten eta hura itzuli zioten arte tentsio handiko uneak bizi behar izan zituen Alarde baztertzailaren alde protestan ari zen publikoaren parte batekin.

El Diario Vasco egunkariet argazkilarit bati kamera kentzen saiatu ziren eta Alarde baztertzailetako kide batekin indarka aritu behar izan zuen bere lan-tresna berreskuratzeko.

Bi eraso horiet izan dira Hondarribian gertatutako larrienak, baina beste hedabide batzuetako kazetariet ere (*Berria* eta EITB, besteak beste), irainak eta beren lana askatasunez egiteko oztopoak jasan zituzten irailaren 8an. ARGIAk elkartasuna adierazi nahi die egoera horretan egon arren, lanean jarraitu eta gertatzen ari zenaz informatzeko konpromisoari eutsi zioten kazetariet.

Horrekin batera, gogoeta egin nahi dugu: iruditzen zaigu mota horretako jokabideekin gizarte demokratiko baten oinarritzko printzipio bat kolokan jarri nahi izan dela eta hori onartezina da. Gertakari publiko bati buruzko kontakizun periodistiko askatasunez egitea informatzeko eskubidearen oinarri-oinarritzko baldintza da. Eta eskubide hori gabe, beste guztiak ere kolokan leudeke.

Horregatik, gogora ekarri nahi dugu tokian tokiko instituzioei dagokiela eskubide hori bermatzea, kasu honetan, Hondarribiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzari. Udaltzaingotak eta Ertzaintzak egin zituzten esku-hartzeek ez zuten informazio-askatasuna bermatu. Prentsako profesionalen babesgabatasun horrek aurrekari arriskutsua ezartzen du, espazio publikoan oihaneko legea ezartzen bada indarkeriaz jotzen duenak gertakarien bere bertsioa ezartzeko aukera baitauka. ARGIA guztiz kontrakoa defendatzen dugu: arrazoiaren indarrarekin ebatzi daitezela gizarte-gatazkak, inola ere ez indarkeria arrazoi bihurtuz.

ZIENTZIA-FIKZIO FEMINISTA

Heteropatriarkatuaren espazio eta denborez harago

Zer gertatuko litzateke politikari teokrata talde batek kolpe militar bidez boterea hartuko balu, eta emakumeak estatuaren ondasun izatera pasako balira? Galdera horretatik abiatuta idatzi zuen Margaret Atwood-ek *The Handmaid's Tale* eleberria 1985ean, duela ez asko telesail formatura egokitu dutena, sekulako ospea lortuz. Zientzia fikzio feminista osasuntsu dagoela dioten baieztapenak zuzenak direla adieraztera datorren seinale nabarmenetan nabarmenena.



Amaia Lekunberri Ansola
@amaialekunberri

Atwoodek sortutako distopian patriarkatuak diktadura fundamentalista itxura hartzen du, emakumeak eskubiderik gabe utziz eta beraien eginkizuna erreprodukzioa mugatuz. Aire kutsadurak gehiengo antzutu duen gizartea izanik, ugalkorrek diren emakumeak mirabe izatera pasa dira ondorengo biologikoak izan ezin dituzten klase altuko familien zerbitzura, eta etengabe bortxatzen dituzte. Telesailaren arrakasta alokairuko sabelen gaineko eztabaida gori-gorian dagoen momentuan etorri izana ez da, seguraski, inolako kasualitatea.

Jen Green eta Sarah Lefanu idazleek *Despatches from the Frontiers of the Female Mind* liburuan argi zioten: "Zientzia fikzioak emakumearen gaur egungo egoera ikertzea ahalbidetzen digu, egoera hobeto fokuratu eta argiztatzeko generoaren metafora propioak erabiliz; hau da, etorkizunari buruz idatzi dezakegu, baina egiatan orainaldiari buruz idazten ari gara". Hala bada, Atwooden lanak arrakasta izan badu, zentzua dauka pentsatzeak gizarte garaikidean emakumeek bizi duten egoera aztertze-ko daukan gaitasunari esker izan dela.

"Zer gertatuko litzateke...?" galderatik abiatu ohi denez, zientzia fikzioak gogeta eta irudimenari ateak zabaltzen dizkio. Ate horrek, orainaldia aztertze-ko aukera ez ezik, etorkizunaren gainean espekulatze-ko parada ere eskaintzen du. Zientzia fikzio feministaren kasuan, zehazki, emakumeek bizi dituzten bazterketa eta zapalkuntzen gainean hausnartzeko eta hauek gainditzeko espazioa ahalbidetzen du generoak. Pamela Sargent zientzia fikzio feminista idazlearen hitzetan, "soilik zientzia fikzioak eta fantasiazko literaturak erakutsi ditzakete emakumeak giro guztiz berri edo arrotzetan. Gure bizitzetan eragiten duten murrizketak desagertuta, zer izatera heldu gaitzekkeen iragarri dezakete, edo azaleratu daitezkeen arazo eta muga berriak erakutsi". Ildo berean egin zuten hurrengo adierazpena Greenek eta Lefanuk ere: "Zientzia fikzioak emakumei ezarritako rol murriztaileetatik harago begiratzea ahalbidetzen du, gure ametsak zein amesgaiztoak deskribatzeko aukera luzatuz". Dirudienez, zientzia fikzioa lur emankorra da feminismoarentzat.

Hasieratik emakumeen esparru

Hizpide dugun generoaren eta emakumeen arteko harremana ez da kontu berria ordea. Are gehiago, emakume bat dugu zientzia fikzioaren sortzaile: Mary Shelleyk erditu zuen generoa 1818an, *Frankenstein* eleberriarekin. Shelleyk, zientzia fikzioak egin ohi duenez, existitzen ez den baina zientziaren bidez sortu daitezkeen izaki bat aurkezten digu, eta beronen sorkuntzak ekar ditzakeen ondorio sozialetan jartzen du arreta.

Generoari ekarpenak egin dizkioten emakumeen artean, Charlotte Perkins Gilman eta Thea Von Harbou aurkitu ditzakegu Shelleyren atzetik. Perkinsek *Herland* idatzi zuen 1915ean, soilik emakumeek osatzen duten jendarte bat hizpide duen utopia. Von Harbouk *Metropolis* kaleratu zuen 1925ean, haren senarrak zinemara eraman zuena eta zinema mutuak eman duen lan onenetarikotzat jotzen dena. Oraindik ere meritu guztia Fritz Langi –senarrari, alegia– aitortzen diote askok, ideia originala eta gidoia Von Harbourena diren arren.

XX. mendeko bigarren hamarkadaren ostean hutsunea dago zientzia fik-



zioari ekarpenak egin dizkioten emakumeei dagokionez. Hasierako egoera alderantzikatuta, generoa gizonezkoen monopolio izatera igaro zen 70eko hamarkada ingurura arte. Feminismoaren bigarren olatuak egoera irauli zuen ordea, eta bat-batean agertu ziren emakume idazleek errotik aldatu zituzten zientzia fikzioaren ordura arteko kode eta genero topikoak. Zientzia fikzio feminista jaiotzeaz zen.

“Zientzia fikzioan sexu-rolak espazio-ontziaren kroskoko metala bezain aldaezinak dira, eta emantzipazioa, hitz ezezaguna”, zioen Sam Lundwallek 1971an, egoera aldatzeaz zela ohartzeko oraindik. Lundwallek bazituen ezkorra izateko arrazoiak, ordura artean etorkizun liluragarri eta guztiz ezberdinak irudikatzeak aukera ematen duen generoaren baitan edozer eraldatu ohi zelako, generoa izan ezik. 70eko hamarkadako emakume idazleek goitik behera aldatu zuten panorama ordea, eta erdigunera ekarri zituzten sexuen arteko erlazioak zein genero-rolak, irudimezko jendarte konplexuetan gertatzen ziren istorioetan. Astindu ederra, espa-

zioiko abenturetara eta rol pasibodun emakumezko pertsonaietara ohitutako generoarentzat.

Ursula K. Le Guin jo izan da garai horretako erreferente nagusitzat, gizonezkoen eremu batean ezustean sartu eta ordena irauli zuelako. Berari egozten zaizkio generoaren baitako obra garrantzitsuenetarikoz zenbait, aipatuena *The Left Hand of Darkness* (1969) bada ere. Lan horretan generoa eta sexualitatea dira hizpide, hermafrodita bilakatu diren eta sexuz aldatzeko gaitasuna daukaten biztanleek osatzen duten planeta batera heldu berri diren lurtarraren ikuspuntutik. Le Guinen atzetik etorri zen gai eta ikuspuntu berriei bide eman zion emakumezko idazle belaunaldi oso bat. Lisa Tuttle, Vonda McIntyre, Marion Zimmer Bradley, Octavia Butler edota James Tiptree Jr. aurkitu ditzakegu, beste askoren artean, belaunaldi horren baitan. Harrobi horretako hainbatek esplizituki feminista bezala aurkeztu zuten euren burua, Joana Russ kasu. Russek kontraesan, zalantza eta identitate arazoak dituzten protagonistak aurkezten ditu bere idatzietan, emakumezkoen rol

sozialaren gaineko hausnarketa feminista bultzatu asmoz. Zientzia fikzioaren planetan bandera morea behin iltzaturra –urrats txiki bat emakumearentzat, urrats handi bat humanitatearentzat–, berezko genero bezala egonkortu zen zientzia fikzio feminista.

Ordutik, generoari ekarpenak egin dizkioten lanen emariak ez du izan etenik. Urteetako ibilbideak eman du eboluziorako paradarik ere, lantzen diren gai eta ikuspuntuetan nabaritu daitekeenez. Istorioak geroz eta konplexuagoak bilakatzen joan dira, eta identitate anitzak aurkezten dituzte bateko eta besteko pertsonaiek. Hain anitzak, ezen feminismoaren bigarren olatuarekin talka egitera ere heldu izan diren. Pauso bat harago, zientzia fikzio queer eta dekolonialaren korronteak ere sortu dira.

Zientzia fikzioa gurean

Euskal Herrira ere heldu da zientzia fikzio feministaren eragina, horren adierazle ZFFZ! eta AnsibleFest. Lehena irakurle talde bat da, eta izena ematen dioten siglek ez dute azalpenik behar: Zientzia Fikzio Feminista Zarautzen. Talde honetan generoaren queer korrontea ere lantzen dute, eta Arrate Hildagok gidatzen du. Gidari berbera dauka irai-

» JEN GREEN ETA SARAH LEFANU:

“Zientzia fikzioak emakumeei ezarritako rol murritzaleetatik harago begiratzea ahalbidetzen du, gure ametsak zein amesgaiztoak deskribatzeko aukera luzatuz”

» ANSIBLERFEST-EKO KIDEAK:

“AnsibleFest euskarazko zientzia fikzioarekin zer gertatzen den hausnartzeko espazioa izatea espero dugu”



laren 21ean eta 22an Bilbon egingo den AnsibleFest zientzia fikzio feminista, queer eta dekoloniala jorratuko dituen jaialdiak, Laura Lazcano, Laura Huelin eta Laura Gaelx-ekin batera baitabil Hidalgo antolakuntza lanetan.

Pikara Magazine aldizkari feministan, La Nave Invisible proiektuan, Aqueduct Press argitaletxean eta Sangre Fucsia irratsaio feministan aritzen dira, beste hainbat konturen artean, AnsibleFesteko tripulazioko kideak. Feminismoarekin eta zientzia fikzioarekin etengabeko harremanetan, generoaren “profesionalak eta zaleak” direla aitortu dute. Bizitoki ezberdinak dituztenez, elkarrekin erlazionatzeko daukaten era ere nahiko gerturatzen da hainbeste estimatzen duten generora, azaldu dutenez “telematikoki” komunikatzen baitira kontuak kudeatu eta erabakiak hartzeko. Soilik Hidalgo eta Gaelx batu dira aurrez aurre, eta bilkura horretan sortu zen jaialdia egiteko ideia. “Sare sozialetan eta aldizkarietan ematen ari diren eztabaidak biltzeko topaketa presentzial bat zabaldu nahi genuen”, azaldu dute.

Jaialdiaren antolatzaileen gehiengoa espainiarra denez, zientzia fikzioak bertan bizi duen egoera zein den aztertua daukate: “Feminismoaren ikus-

» Emakume bat dugu zientzia fikzioaren sortzaile: Mary Shelleyk erditu zuen generoa 1818an, *Frankenstein* eleberriarekin

» XX. mendeko bigarren hamarkadaren ostean, generoa gizonezkoen monopolio izatera igaroz 70eko hamarkada ingurura arte

garritasunaz eta emakumeek idatzitako zientzia fikzioaz hitz egiten badugu, dudarik gabe funtsezko momentu bat bizitzen ari gara. (...) *fanfictionetik*, bi-deo-jokoetatik, rol jokoetatik eta eremu editorialaz haragoko beste esparru batzuetatik datorren LGTBI+ kolektiboko jende asko dago energia askorekin eta

gauzak egiteko gogoz”. Euskal Herriari dagokionez, ordea, zelaia arakatzear daukate, baina “AnsibleFest euskarazko zientzia fikzioarekin zer gertatzen den hausnartzeko espazioa izatea” espero dute. Zientzia fikzioa euskaraz “zeintzuk idazten duten, Mayi Pelot bezalako autore gehiago zergatik ez dagoen, eta egon daitezen zer egin behar den” hausnartzeko beharra ikusten dute –duela bi urte Miarritzen hil zen idazlea aitzindaria izan zen euskaraz ipuin futuristak idazten-. “Hemendik pare bat urtera euskarazko zientzia fikzio feministaren panorama bestelakoa izatea espero dugu... bidean diren pare bat proiekturen berri badaukagu, eta esan daiteke zuzen goazela baieztatzen dutela”, diote baikor.

Ursula K. Le Guinen omenez, beronen *Rocannon's World* (1966) eleberritik hartu dute *Ansible* terminoa jaialdiari izena emateko, argi-urteko distantziak gaindituta berehalako komunikazioak ezartzeko aukera ematen duen gailu edo dispositiboari izena ematen dion hitza. Zientzia fikzio feminista erakusten ari den denbora-espazio mugak zeharkatzeko ahalmenari erreparatu ezkerro, gailua fikziozkoa den duda egiten du batek. ■



Mabi Revuelta

Ume izatearen ederra



Xabier Gantzarain
@gantzarain

DIBERTIMENDU TIPOGRAFIKOAK (2010)

Argazkiak, 45 x 55 cm bakoitza

2015ean egon zen ikusgai Artiumen *Jostailu apurtezinak* erakusketa. Azken urteetako ikerketa plastikoaren emaitza zen han ikus zitekeena, hiru ildo nagusiren inguruan eratua: hizkuntza, jolasa eta arte hezkuntza.

Erakusketa haren oinarrian lan hau zegoen, *Dibertimendu tipografikoak*, 1926an Pragan argitara emandako *Abe-ceda* liburuaren bertsioa. Gorputzarekin osatutako alfabetoa. Hizkuntzaren materialtasuna abiapuntu hartuta, gorputza bihurrituz joan ziren hizkiak eratzen. Abangoardia txekiarreko kide ziren Vitezslav Nezval poeta, Karel Teige artista eta Milada Mayerova dantzaria bildu zi-

ren abeze hura ontzeko, eta haren bertsioa egiten dibertitu zen Mabi Revuelta Sierra (Bilbo, 1967ko abuztuaren 18a).

Alfabetoa munduko jolas guztien ama da, hitz guztiena, esaldi guztiena, munduko liburu guztiena. Baina baita geurea ere: ez genuke jakingo zer sentitzen dugun alfabetorik gabe. Eta are, ez genuke jakingo sentitzen alfabetorik gabe, hitzik gabe, esaldirik gabe, munduko liburu guztiak gabe.

Alfabetoa hasiera da, hasiera guztien hasiera. Munduak ezin du orduan baino ederragoa izan inoiz. Eta artistak edertasun ia puru hori bilatzen du, formetan ere garbia da, bere lanak aratzak dira,

jostailu berri baten antzekoak. Artistak jolas egin nahi du, baina ez bakarrik. Hizki bakoitza argazki batean erakusten du, paretan jartzen du, liburuan jaso zituenean gero, baina karta sorta batean ere biltzen du alfabetoa, banatu egin daitezke, hizkiak batu, hitzak osatu, hitzak asmatu, forma eder bat eman esku artean duzun munduari.

Zertarako da ba artea?

Gara egunkariko *Mugalari* gehigarriko elkarrizketan esan zuen: “Urte askotan izan naiz hezitzaile, eta maiz galdetu izan diot neure buruari artea hezkuntzan jolasaren bidez sartzeko modu egokiena zein den”. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bi ahotako atseginez



Aritz Galarraga
@aritzgalarraga

Izena ezaguna nuen, itzultzaile gisa neukan gordeta memoria internoan. Vladimir Kaminer idazle alemanaren *Errusiar diskoteka* narrazio liburu komikoa euskaratu baitzuen (Pasazaite, 2015) Mari Jose Kerejetak –inpaktuzkoa izan zen, gainera, aurkezpen bideoa, zeinean agertzen baita lorotxo batekin sorbaldan–. Jean Etxepareren *Beribilez* hartu arte, eta irakurri arte 1987ko edizioaren sarrera testua, idatzi ere idazten zuenik ez nekien, ordea. Esan nuen ordukoan: Mari Jose Kerejetaren hitzaurrea da gordina, eta horrexegatik biziki interesantea. Etxepareri egindako aitzinsolasak jakin-mina piztu zidan; hala iritsi nintzen momentuz bakarra duen sorkuntza lan honetara, *Ezezagun baten kuadernoa*, poema bilduma, Irun Hiria literatura sariketa irabazitakoa.

Kerejetaren beraren hitzekin esateko, “amorioari buruzko erreflesioa” dukegu, “akaso gurean oso ohizkoa ez den malditismoaren kutsu horrekin. Ez maitasun xamar eta inozoa”. Osotoro akort, nahiz maitasunaz, denboraren iragaiteaz, galeraz egindako hausnarketaz gain, gauza gehiago ere baden liburua. Bada, adibidez, halako *carnet de voyage* bat, Venezia, akropolis –“urrunean, Pireoa ere beste portu bat da”–, Bosforoko arrasgorri azkengabea. Bada erreferentzia literario sorta bat, Pavese, Celan, Lowry, halako batean Sappho eta Yourcenar. Bada trahestismo ariketa bat: “Neroni izan nintzen gizon hori”. Eta bada alkoholak ziprztindutako bidaldi bat, etilikoa, soluzio emaila tarteka, “Farmakopea” poeman bezala: “Urrun-minarentzat, / itzulbiderik ez dagoenean, / ginebra hutsa, hotz-hotza”.

Ezezagun baten kuadernoa

MARI JOSE KEREJETA

Kutxa, 1988



“Emakumeek idatziriko liburu gehiegi” ez zegoen garaian argitaratua, Felipe Juaristik aitortu zuen: “Aspaldian euskarazko poemak irakurtzean senditzen ez nuen sentsazioa jabetu da nigan, sentsazio itogarria eta itogarria moduan atseginkoia”. *Dibortzio tramitazioa* poeman esaten den bezala, “bi ahotako atseginez” irakurtzen dela, alegia. Gerardo Markuletak, aldiz, gora ekarri zuen, “poema liburuak berezko balio handia du eta euskal poesiaren bilakaeran giltzarri ttipi jotzeko modukoa da”. Lastima da, hartara, Kerejeta liburu bakarrean geratu izana. Sasoi baluke oraindik, bete-betea sartuko litzateke tropelaren belaunaldian –besterik da halakorik nahiko ote lukeen–, zeina ez dagoen, prezisamente, emakume idazleez gainezka. Bien bitartean, hor dugu *Ezezagun baten kuadernoa*, gordina, eta horrexegatik biziki interesantea. ■

» DISKOA

Borroka egiteko thrash metal doinuak



Joxi Ubeda Goikoetxea

Thrash metala da Herabe taldearen oinarria, taldekideek dioten bezala, eta argi eta garbi erakusten dute hori beren lehen diskoan. Soinu basatia eta trinkoa gauzatu dute, bi gitarraekin, erritmo biziarekin, eta ahots indartsu eta urratu batekin. Leloak, koruak, moldaketak eta gainerako xehetasunak arretaz landu dituzte, eta lan ona egin dute. Horretarako, Brigi musikariaren (Koma, El Drogas) laguntza estimagarria izan dute, hura arduratu baita masterizazioaz. Grabazioa Tartalo Records beren estudioan egin dute.

Iruñerrikoa da Herabe taldea. Beste hainbat taldetan aritu ondoren, Dani (ahotsa), Unai (bateria), Izko (baxua), Christo (gitarra) eta Gari (gitarra) elkarrekin jotzen hasi ziren, eta 2013an egin zuten lehen kontzertua Atarrabian. Besteak beste, Lamb Of God, Koma, Sociedad Alcohólica eta Su Ta Gar taldeen eraginak antzematen dira beren kantetan, baina taldeak bere nortasuna dauka.

Batere txantxa eta txorakeriarik gabe jotzen dute, eta modu berean mintzo dira kantetan, gordin, bidegabekeriaren eta zapalkuntzaren aurka. Askatasuna lortzeko borroka egitea aldarrikatzen dute, azken batean.

Besteak beste, hauxe diote: "Hitzak bahituta daude,

Egiari zor

HERABE

Autoekoizpena, 2018



Iruñerrikoa da Herabe taldea. Dani (ahotsa), Unai (bateria), Izko (baxua), Christo (gitarra) eta Gari (gitarra).



egia esaterik ez dago, aldarrika ditzagun gure eskubideak" (*Herabe*); "Herria nazkatu da, kriminalizatu egiten gaituzte, nora goaz hiltzaile hauekin? Kalea gurea da, entzungo gaituzte orain inoiz bezala" (*Nora goaz?*); "Bonbak gauean, heriotzaren oihartzuna Gazako herrietan" (*Muhammad Al-Durrah*); "Euskaldunak gara eta ez dugu ahaztuko gure nortasuna gure hizkuntza dela, euskara ikasiz eta euskara bultzatuz gaindi ditzakegu oztopo guztiak, hizkuntza bat ez da galtzen zure ahotsan bada-go" (*Zure ahotsan bada-go*); "Herri bat gara, heldu da unea gure bidea egiteko, gure herriak ez al du merezi aske izateko eskubidea?" (*Aske izateko eskubidea*).

Herabe taldea Iruñeko Nafarcore musika elkartean aritzen da. 2014an sortu zen elkarte hori, eta bere lana txalogarria da, kontzertuak antolatzeaz gain, bideoak egiten ditu, eta taldeei sustapena, diseinua eta beste zenbait zerbitzu eskaintzeko aritzen delako, auzolanean. ■



Ardoa, sorginak eta bertsoa bizipozaren mesede



Iker Olabarrieta Herran

Txandrio bertso eskolako kidea

ARGAZKIAK: JUANTXU MARTINEZ

BERTSO POTEOA

Noiz: Irailaren 15 eta 16an. Non: Bilar, Arabako Errioxako mahats-bilketa festan.

Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Orlando Arreitunandia, Unai Bengoetxea eta Iker Olabarrieta.

“Euskal Herriko lau ertzetara itzuliko gara gabaz”, bota zuen aspaldi Maialen Lujanbiok gobaradun amonen bertso antologikoan; ertz horietako bat Arabako Errioxa dugu. Periferia geografikoa izateaz gain, urtetan periferikoak sentitu izan gara hainbat arlotan, ardogintza-ren salbuespenarekin.

Badira hogeita bost urte irailaren erdialdean ospatzen dela Arabako Errioxako mahats-bilketa festa. Aurten Sorginetxe trikuharria dagoen Bilar herriko biztanleei egokitu zaie antolatzea eta ardoaren inguruko jaiaren bueltan Maialen Lujanbio aukeratu dute pregoilari. Maridaje ona sorginak, bertsoa eta ardoa.

Egun handiaren bezperan Errioxa aldeko Txandrio bertso eskolak antolatutako eguerdiko bertso-poteoa izan zen. Maialen Lujanbiorekin batera, Orlando Arreitunandia, Unai Bengoetxea eta Iker Olabarrieta txandriotarrak izan ziren bertsokide.

Plazan, Harantz Honantz-Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteko txoznan hiru-rogei bat lagun adi-adi trikiti doinuen ostean zetorrenari. Saio “intimoa” izan behar zena intimitate masiboa bihurtu zen. Eguzkiak ere ez zuen aukerarik galdu nahi izan laukoteak egindako zortziko nagusiko agurrak dastatzeko. Segidan etorriko ziren koplen erritmo biziak irriñoren bat marraztu zuen zalearen ahoan. Ardoa, sorginak, enologia masterrak eta euskara aieratu zituzten bertsolariek. Eta opariak heldu zitzaizkion bertsoen sorginari: abuztuan egindako bisitan botatako bertsoa larruzko pergaminoan tatuatu zuten herriko sorginek eta txandriotarrok ere zapi ederra eskaini genion, “eskerrik asko, Maialen”.

Motorrak bero-bero heldu zen kuadrilla handia jubilatuen tabernara. Bertan, zortziko txikian zaharren txoko kuttuna gaztetxe eta euskaldunen kluba bihurtu zen, baita txalo zaparraden artean, giro bero, gazte eta euskaldunean Lujanbiok

egindako aitortza: “...hola bada banator / hona bizitzera”. Igerilekuko tabernan eman zitzaion saioari bukaera zortziko txikian eta puntuka aritu ziren, “erreak” “ege” bihurtuz eta zaleari merezitako agurra emanez.

Igandean, jai erraldoiaren egunean, inoiz bazter hauetan entzun den pregoirik ederrena entzun zen; bertsotan eta euskaraz. Ondo jositako metaforak, jota doinuak tartekatuta. Bihotzean iltzatzen diren bertsoak, erre ez zituzten sorginen ondorengoek zinez eskertutako emozio sorta. Bertoko zein bertaratutakoen artean bizipoza nagusi eta akelarrea zuzentzen ari zen dama beltzaren begietan ere distira.

Euskaraldia heltzeaz dagoen udazkenari begira, Arabako Errioxan belarri-prest eta aho-biziak mendiko onddoak lez agertuko direlakoan gaude, euskara plazara atera eta hitzekin jolastea bezalakorik ez dago. Ardoa, bertsoa eta sorginen herrian, gora kopak! ■

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Sustrai Colinak 2011n Usurbilen botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*. Gaia: Bihar da hainbeste borrokatu duzun finalaren eguna.

Bihar da eguna egun _____
akabo buruhaustea
nahiko nukeena kantxara irten
ta dena _____ uztea.
Finalaurrea irabazi nun
hark eman zidan _____
baina partida luze ta zail bat
_____ zen haren ostea.
Batzuei doble kostatzen zaigu
_____ iristeia. (bis)

Zorionean prentsurrekoan
_____ zidan jendeak
nere lankide ta enpresaokak
ere izan ziren _____.
Nahiz ta enpresak ez konturatu
_____ doaz mendeak
bukatu dira _____ bateko
erabaki zelebrea.
Inori burlik ez egiteko
balio beza _____! (bis)

Hilabete bat pasa ondoren
soka batetik _____
gaur pentsatzen dut "Eskerrak Xala
ez hintzen _____ isilik".
Bihar izan nahi nuke _____ on
eder eta borobilik
ta demostratu hilda zegona
_____ jada ez dagola
ta astelehenean hitz egin bedi
partidari _____ soilik! (bis)



Dani Blanco

O	T	A	G	K	I	L	I	Z	T	N	I	Z	R	A
C	E	H	E	A	C	Z	J	C	B	U	E	A	F	V
C	A	G	L	P	K	A	E	B	E	R	T	G	E	L
R	D	F	P	N	S	J	R	R	S	V	O	N	P	M
U	L	H	I	O	S	O	U	B	B	E	R	T	A	N
P	A	I	D	N	U	A	H	P	V	E	P	A	D	D
I	V	Z	J	R	A	O	J	P	T	B	S	H	J	T
P	Z	A	U	A	C	L	F	F	V	I	A	R	A	G
L	M	A	A	R	H	E	E	G	S	F	K	H	Z	S
A	N	G	N	U	U	E	D	R	N	F	I	Z	P	H
G	L	O	V	A	R	B	M	E	A	I	L	N	G	G
U	E	G	O	N	Z	R	F	M	D	M	I	E	T	M
N	P	E	S	M	Z	E	U	S	E	J	H	R	I	N
D	J	I	H	I	Z	G	A	R	L	H	T	E	F	U
U	I	D	F	N	Z	U	C	I	A	S	H	A	E	F
J	S	F	M	H	I	N	H	A	N	L	I	K	U	A

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									

Ezker-eskuin:

1. Erraz. Tamaina handiko hegaztiak. 2. Argazkian. 3. Mendealdean, zen. Atera. 4. Eramaille. Aditza (laburdura). 5. Mililitro. Ausikitzean egiten den hotsa. 6. Aezkoakoa. Atomo kargatu. 7. Nire aldeko. 8. Zama-abere. Abereei janaria jartzen zaien egurrezko ontzia.



Goitik behera:

1. Atxilotua. 2. Irartzen duena. 3. Osasuntsu. Lehergai ezaguna. 4. Noren atzizkia. Ekintza. 5. Mahai batean dauden bolak, haga bat erabiliz, elkar joaraztean datzan jokoa. 6. Itxura, antza. Bizkaiko kostaldeko herria. 7. Norat atzizkia. Pipi, zeden. 8. Eatarrak. 9. Kontakizuna, istorioa.

Sudokua

Erraza

				9	4			2
	9	2		6				1
8			7	2	3	9	5	6
				4				8
7		4				6		3
9				5				
4	2	3	5	7	1			9
6				8		1	3	
1			4	3				

Zaila

				6		4		
			7		1		2	3
				8	4		1	5
8							3	
3		6				7		1
	1							2
2	9		8	4				
6	4		3		7			
		5		2				

Ebazpenak

Bihar da eguna egun **haundia**/akabo buruhaustea/nahiko nukeena kantxara irten/ta dena **bertan** uztea/Finalaurrea irabazi nun/hark eman zidan **ospea**/baina partida luze ta zail bat/izan zen haren ostea/Batzuei doble kostatzen zaigu/finalera iristeia. // Zorionean prentsurrekoan/**lagundu** zidan jendeak/nere lankide ta enpresaokak/ere izan ziren **trebeak**/Nahiz ta enpresak ez konturatu/**aurrera** doaz mendeak/bukatu dira **garai** bateko/erabaki zelebrea/**inori** burlik ez egiteko/balio beza **nerreak** // Hilabete bat pasa ondoren/soka batetik **zintzilik**/gaur pentsatzen dut "Eskerrak Xala/ez hintzen **egon** isilik"/Bihar izan nahi nuke **egun** on/eder eta borobilik/ta demostratu hilda zegona/jada ez dagola **hilik**/ta astelehenean hitz egin bedi/partidari **buruz** soilik

8	7	5	3	6	2	7	9	1	7	5	4	4	6	9
6	3	8	7	1	7	2	2	2	1	3	4	4	4	6
9	6	3	8	3	8	6	2	7	5	1	7	4	1	7
2	2	9	6	8	3	5	5	3	4	3	3	4	4	4
3	5	6	6	2	2	6	2	6	4	9	4	8	1	8
4	4	3	5	3	5	3	6	2	7	1	7	6	1	8
8	8	4	7	6	1	6	6	6	2	4	4	4	4	4
5	5	3	2	2	7	4	8	6	2	3	3	7	7	7
3	5	4	7	5	1	8	2	3	3	4	4	4	4	4
5	8	1	2	6	3	3	4	9	7	7	7	7	7	7

Zaila

1	8	6	9	4	3	6	2	7	5	1	3	4	4	4
6	7	5	2	8	9	1	1	3	4	4	4	4	4	4
4	2	3	5	7	1	8	6	6	9	9	9	9	9	9
9	3	8	6	5	2	2	4	4	1	7	7	7	7	7
7	5	4	9	1	8	6	9	6	2	3	3	3	3	3
2	1	6	3	4	7	1	5	8	9	5	6	6	6	6
8	4	1	7	2	3	9	3	9	5	6	6	6	6	6
3	9	2	8	6	5	7	4	1	1	1	1	1	1	1
5	6	7	1	9	4	3	8	2	2	2	2	2	2	2

Erraza

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62	63	64	65	66	67	68	69	70	71	72	73	74	75	76	77	78	79	80	81	82	83	84	85	86	87	88	89	90	91	92	93	94	95	96	97	98	99	100
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

9. Kondaira.
Altea, Ea. 7. Rat, Sits, 8. Pakoak.
TNT, 4. En, Alzio, 5. Billar, 6.
1. Alzema, 2. Irtar, 3. Sano.
Goitik behera:
8. Asto, Aska.
Klaska, 6. Aetza, 10. 7. Niretar.
Zan, Irtar, 4. Ertar, 5. Ml.
1. Aise, Arak, 2. Irtar, 3.
Esker-eskuin:

Mixel Etxekopar. GPSrik gabeko bidaiaria



Orain honetan eta gero hartan ikusi ohi dugu Mixel Etxekopar. Zenbatezinak eta polikromoak bere musika-bidaideak, baina xendra jakinetan. Gotaineko xülüla eta ttun-ttunjolea, guztiz sortzaile eta esperimentatzaile librea izaki, Iparraldean sortutako *4 sasua*k proiektuan dabil. Lehen aldiz emango da Hegoaldean bitxi hau, irailaren 23an Larraulgo elizan.

“Zubia sortzen da Musika Handi autoproklamatuaren eta musika herrikoiaeren artean”



Aitor Atxega Zubikarai

Elkar topatzea

“Esan izan da hantustea dela musika klasikoa. Nork imagina zezakeen zintzarriak, txalaparta, txirula edota ttun-ttuna entzutea Vivaldiren partitura batean... Beharbada ustez urrun dagoena, benetan hurbil dago. Ea egotea den elkar entzun eta ulertzeko gakoa! *4 sasua*k ia ia sedukzio jolas bat da. Bertan, hizkuntza arrotzak maitatu eta musika-tresna oso ezberdinak erakarri egiten dira”.

2015ean ernalditu zen *4 sasua*k, eta azkenean, 2018an pasako duzue Hegoaldera. Bakoitzak bere xenda egiten du baina zubiak badira eta eskertzekoa da. Berdin zubirik ez denean eraikitzen ditugu. Horretarako espazioak sortu ditugu, esaterako, XIRU jaialdia Gotainen, HEBENTIK elkarteak Maulen. Zubi hauek dira, baina zubiak. XIRUren 30. aldia izanen dugu 2019an.

Lehenbiziko aldia izanen da *4 sasua*k emanaldia “check-pointez-haraindiko-Hegoaldea deritzogun lurralde ideiaz-aurridera-baina-auzo-arrotzean”. Eta hau herri ekimen bati esker, Larraulgo Arriaga-Victoria Eugenia (ez den) antzokia dagoen megapolisean! Eskerrak hango “artibistei”. Horrelakorik ezean –eta lan izugarria dugu egiteko– batzuk frantsesago eta besteak espainiarrago gara, nahi ala ez!

Oro har musika klasikoa zurrun eta lotu bezala ikusten dugu.

Barroko aroan, halako topaketak ez ziren hain arraroak iduriz. Ahozkotasuk ere bazuen lekua, baita inprobisazioak ere. Bach inprobisatzaile gaitza omen zen, eta horrek hazi zuen bere

musika sorkuntza. Eleaniztasun musikala dago jokoan, erraiten ahal bada!

1725. urtean estreinatu ziren Vivaldiren 4 urtaroak. Apaiz gorriak lau soneto idatzi zituen, kontzertu bakoitzerako bana. Entzuleek soneto hauek eskutan estreinatu ziren.

Urtaro bakoitzerako soneto bana idatzi zuen eta horietan agertzen dena musikan irudikatzen da nolabait. Musika belarrientzako filma dela esan omen zuen Edgar Varese konpositoreak eta kasu honetan musika kasik hitzak baino hobeki mintzo da, ene iduriko! Zuberioan lehen bazen ardo bat zeinaren izena baitzen “Bera mintzo”; Vivaldiren musika hala da nik uste. Soneto horiek inprimatuak dira grabatu dugun diskoaren liburuan, italieratik zuzen euskarara itzuliak, Orpustan jaun baxenafartarren eskutik.

Nola sortu zen 4 urtaroak 4 sasua bilakatzeko asmoa?

Marina Beheretxe izan da abiapuntu eta zubi. Intuizioa izan zuen ezkondu zatekeela ederki euskal musika espirituarekin. Eta berak daki zer dioen: Baionako



*"Emanaldi honetan
jokoan dena
ahozkotasuna da,
eta inprobisaketa
ere bai".*

Orkestrako lehen biolina dugu, eta zango bat eta burua euskal kulturaren eta euskararen ditu. Euskal musikari ezagunen alaba eta biloba ere badago, gure musika herrikoian txikitatik murgildua. Bigarren urratsean hots egin zidan, eta ni harriturik geratu, ez beroegi egia esan, hain delako obra hori pieza bat, oso eta borobila. Baina berak zekien nora ari zen eta barna, luze eta zabal ikertu zuen. Horrela gara bildu azkenean.

Esan daiteke 4 sasuiak, Vivaldiren 4 urtarorak euskal maneran emateko modu bat dela? Zertan datza euskal manara hori?

Plano ezberdinak dira. Batetik, euskal soinu tresnak erabiltzen dira: xirula, ttun ttuna, txalaparta, panderoa... Baina hau besterik ez balego ez ginake ase, itxura behar bada ederra izango luke, baina itxura bakarrik izango litzateke. Gurean jokoan dena ahozkatasuna da, eta inprobisazioa ere bai, nahiz eta obra zorrotza izan espazioak dira horretarako. Eta hor euskal kultura bere etxean da, baita barroko espirituan ere. Beheretxe dion bezala, lehen mugimendua dantza jauzi baten airea da, beraz Xiberorako darabilgun ttun ttuna "bere bara-

tzear" dago dudarik gabe! Ondoko batean zer erritmo dabil: gure fandagoarena nabarmen! Panderoa hor etxean bezala sentitzen da. Horregatik, arin arin bat ere gehitu dugu Patrik Larralderen esku bizkorrez; agian ez dugu Vivaldi ofentsatuko! Naturari loturiko musika dela argi da eta zintzarriak, txorien txioak ez dira segur arrotz. Txalapartarena bai delikatu zen ene iduriz, eta horretan lan ederra egin dute Paxkalin Chabagno eta Paxkal Indok: nola ote daiteke musika zehatz batean sartu, zaldi basaren libertatea atxikiz. Hau desafio pollita! Paxkal Indoren ZTK disketxearekin atera dugu disko-liburu polit hau.

Musika tradizional eta klasikoaren arteko jolas honetan, zer eskaintzen, jasotzen eta ikasten du bakoitzak?

Zubi ederrak eraikitzen dira bereiziak izan diren munduen artean: Musika Handi autoproklamatu haren eta musika herrikoien artean, bat; euskal kultura eta erdal kulturaren artean beste bat; musika idatziaren eta ahoz aho dabilenaren artean hirugarren bat; jende batzuen artean azkena, hau baita funtsean garrantzitsua! Ere mu haue-

tan bai Arranoa laukotekoek bai Paxkal Indok berak ere badakite zerbait: Baigorri antolatutako zuten ganbarako musika akademia bat. Gazte andana etorri zen ikastera, goi mailako ikasleak ziren. Ikastera eta ikustera, pentsa; goizean Ravelen pieza bat, eta arratsaldean beste euskaldun batengana, Erramun Martikorenarengana! Gu Vivaldiren proiektuaren lehen urratsetan ginen, eta Indo garai berean Baigorri... Horra beste zubi bat.

Zer ikusiko dugu Larraulen?

4 sasuiak emanaldia ikusgai izanen da, bai eta aitzin gustu gisa, bi zatitxo: bat Xiberora eramane gaituena, Xiberoko kantu herrikoien inguruan, ahotsa, txalaparta, xirula eta ttun ttuna josiz; eta bestea Arranoa laukotearen eskutik. Bigarren partean Vivaldiren obra emanen dugu honako orkestra atipikoan: Arranoa laukotea, biolin bi, alto-biola eta txeloa. Hauei gehituta arituko dira Marina Beheretxe biolin bakarlaria; Paxkal Indo eta Paxkalin Chabagno txalaparta eta perkusio joleak, Patrik Larralde panderoa eta ni botza, xirula ttun ttuna, perkusioak... ■



Master amaierako lanean plagiatzeta da EHU*n* irteera profesional onena daukan karrera

EHUko geroz eta ikasle gehiagok plagiitzen dituzte beste egileen testuak euren master amaierako lanetan eta unibertsitateko arduradunak kezkatuta daude. EHU*k* publiko egin duen ohar batean ohartarazi duenez, “plagiatzek ez du laguntzen kargu publiko bat lortzen, azkenaldiko albis-
teek kontrakoa iradoki badezakete ere”. Ez du iritzi bera *Beranduegi*-rekin anonimoki komunikatu den ikasle batek: “Nik ere plagiatu dut nire master amaierako lanean eta dagoeneko negoziatzen ari naiz lanpostua lortzeko. Ministerio bat emango didatela espero dut, baina Espainiako Kongresuan postutxo batekin ere

konformatuko nintzateke”, azaldu digu. Euskal Herrian postu on bat lortzeko aukerarik ikusten ez ote duen galdetuta, zera erantzun digu: “Horretarako EA*n* afiliatu behar duzu eta urte pila bat pasa jesuita artean, auskalo zer fabore egiten. Ez du konpentsatzen”.



Ministro kargua eskuratu berri du EHUko plagiatzaille honek.

SAREAN ARRANTZATUA

Autoak sutara!



Txokorrak sofán erre



Herrialde Katalanen formako taloa asmatu dute Goierrin

Espainiako Itzulian parte hartu duten ziklistei eskainitako “Aurrekubike” iraultzaileak izan duen arrakastak bultzatuta, euskal produktu tradizionalak sortzen dituen artisau eta artista jendea ideia berriak garatzen hasi da, udazken-neguko feria eta euskal jaietan aurkezteko asmoarekin. Txistulariak, trikitilariak, bertsolariak... guztiak hasi dira tradizioa eta modernitatea uztartuko dituzten piezak lantzen, baita saskigile, hargin eta gainerako guztien egileak ere, produktu gastronomikoe-

nak tartean. *Beranduegi*k horietako bat ezagutu ahal izan du: Goierriko Talogileen *Països Catalans* formako taloa, GED dinamikan oinarritua. “Aurrekue ikusita, erabaki genuen guk ere zerbait politte egitea”, azaldu digu Mertxe Aranguren segurarrak. “Zaile izan da taloe sortzea, Kataluniaren forma luzexka horrekin, baina lortu dugu. Bai, hala da, askok esan digute taloaren tradizioe prostituitzen ari gela. Ba ikusiko duzu produktu berriaren prezioe ezagutzen dutenean, kar kar kar...”.



Iberiar penintsularen forma duen taloekin ere ari dira frogak egiten goierritarrak.



**Zer
emateko
prest zaude?**

**Eta zer
jaso
nahi duzu?**

**INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA
EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA**

☎ 943 371 545

www.argia.eus/eginargiakoa

🐦 #ArgiaJendea

LANDAREAK LANTZEN 2019

LURRA LANTZEKO AGENDA-LIBURUA

HILABETEARI
LOTUTAKO LANAK
BARATZE,
FRUITU BARATZE,
LORE BARATZE
ETA BASOAN

.....
ILARGIAREN
BI ZIKLOAK,
ONGARRIKETA,
LANDARE LAGUNTZAILEAK,
TRATAMENDU NATURALAK,
LUARRA NOLA EGIN...

**Jakoba Errekondoren jakintza eta
Antton Olariagaren ilustrazioak.**
Aurtengo gaia: lan-tresnak

12€

Bidalketa gastuak
4€

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

 **ARGIA**
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus

   @bizibaratzea

*Jakoba Errekondok
sinatzeko aukera

